euskara ikasten ari garenon aldizkaria

HABE

94. zenb. 1986.eko urriaren 1ekoa 175 pta. - 9 libera (B.E.Z. barne)



EUSKARA IKASTEKO PROGRAMA BERRIA ETB-N

Gure geografiaren bitxikeriak (II).

Pako Ibañezekin elkarrizketa.

IRAKURRI ETA ENTZUN



INSTITUTUKO IRAKASLEENTZAKO LAGUNGARRIA

❸ Euskara irakasteko **bitartekoen urritasuna** dela eta, Elgoibarko Euskara Mintegiak "Euskal Hizkuntza eta Literatura" liburua sortu du. Liburu hau BBB-LH-IEE 1. mailarako prestatuta dago eta institutu eta ikastetxeetan lehen aipatutako hutsunea betetzeko asmoz sortua da. Horregatik, Hezkuntza Sailak markatutako programaren bidetik doa. Helburua ere hortik doa, ikasleek euskara eta euskal literaturaren alderdi desberdinetan ikuspegi zabala izan dezaten egin bait dute.

"Euskal Hizkuntza eta Literatura" liburua, egileek diotenez, lan tresna da, eta institutu eta ikastetxe bakoitzak bere modura erabiltzeko aukera du. Liburu **mardul** hau egoki eta **baliagarri** gertatuko da, zalantzarik gabe.

SORMEN LIBREKO MUSIKA TRADIZIONALA

❸ IZEKI folk taldeak grabatutako lehen lana da hau. Single honetan "Kattalin ttiki ttiki" eta "Sorgin dantza" kantak daude eta **epe** labur bat barru LPa grabatzeko proiektua dago, kanta hauek LPan sartuz. Nahiz eta orain arte ezer grabaturik ez izan, IZEKI taldea historial luzeko taldea da, 1978.eko azken hilabeteetan hasi zen formatzen eta.



IZEKI taldearen musika, musika tradizionalean oinarritzen da, baina ez dute musika hori partituran agertzen den bezala interpretazen, askatasun handiagoz baizik. Gainera, **taldeko kideen** artean, hamahiru bat instrumentu jotzen dituzte. Hau dela eta, edozein ikuspegitatik begiratuta, interes handikoa eta aberatsa gertatzen da IZEKI taldekoek egiten duten musika.

GOIHERRIKO BERTSOLARIAK GOIHERRIN BERTSOTAN

❷ Goiherriko hamar bertsolari trebe eta ezagunen ehun eta hogeitasei bertsoren **bilduma** da diskoa. Euskal Herriko azken txapelketarako **prestatu asmoz** Zaldibian biltzen ziren nohizbehinka bertsolari hauek. Horrela saio hauek aukera **ezinhobea** eskaini zioten IZ-ko Fernando Unsain goiherritarrari diskoa egiteko. Oraingoan ere, beste askotan bezala, bertsolariek jatorria, baserria eta ingurunea kantatu dute, gure herriko arazoak alde batera utzi gabe. Badira bertso sakon eta serioak, baita xelebreak ere. Bertsozaleek aukera bikaina dute doinu ederrik entzun eta ikasteko. Kitarra, pianoa, akordeoia edo beste zenbait instrumentu laguntza handikoak dira bertso **mamitsu** hauek entzun eta gozatzeko.



BITARTEKOEN URRITASUNA.—*La escasez de medios.*
MARDUL.—*Bikaina, lodia.*
BALIAGARRI.—*Util.*
EPE.—*Plazo.*
TALDEKO KIDEAK.—*Los componentes del grupo.*
BILDUMA.—*Colección.*
PRESTATU ASMOZ.—*Preparatzeko intentzioarekin, preparatu nahian.*
EZINHOBE.—*Denetan onena.*
MAMITSU.—*Mami handikoa, mardula.*

EUSKAL PRENTSAREN BERRI ONAK

Euskal kazetaritzan dantza berria hasi da. Irailaren 10ean atera zuen "El Diario Vasco"k bere asteroko **gehigarria:** "DV Zabalik". Asteazkenetan izango da eta zortzi orrialde izango ditu. HABE aldizkariaren zuzendari izandako Felix Ibargutxi da arduraduna. Laster plazaratzekoak dira beste hiru nobedade ere: "Egin" eta "Deia" prestatzen ari diren asteburuetako euskal edizioak ("HEMEN" eta "EGUNA") eta "El Correo Español-El Pueblo Vasco"rena. Hau dena **gauzatzen** denean, euskararen presentzia dezente aldatuko da gure prentsa idatzian. Panorama honen aurrean zenbait kezka plazaratu nahi genituzke, gogoeta gisa.

- Lehenik, kalitatearen arazoa dago. Hauxe da gure kezka nagusia. Zernolako itxura eta mamia izango dute esperientzia berriok? Eta kalitateaz ari garenean, kazetaritzaren ikuspegitik begiratu behar dira gauzak. Gaurregun ezer egitekotan, aurrerapauso bat izango den zerbait nahi litzateke eta ez halako saski-naski marjinal bat. Bestalde, kalitatea aipatzerakoan, hor dago euskararen auzia bera. Azken urteotan, ahalegin beroak egin dira euskara kazetaritzaren munduan sartu eta **trebatzeko.** Hala ere, zeregin handia dago oraindik, batez ere estilo argi, bizi eta **zailu** bat lortu nahi bada.
- Beste alderdi bat irakurlegoarena da, eta ez da auzirik kaskarrena gure artean. Izango ote da behar bezainbateko irakurle kopururik esperientzia berri hauei eusteko? Hortxe dago koxka handi bat. Prentsak irakurleak behar ditu, eta bestela **jai du.** Hainbeste proiektu batera plazaratzean, ez da erraz izango irakurlego zabal bat biltzea. Badirudi gauzak apustu bezala planteatu nahi direla eta ikusiko dugu nork irabazten duen apustua. Dena dela, irakurle berriak **erakartzeko** ahalegin biziak egin beharko dituzte egunkariok. Hor dago euskal prentsaren etorkizuna.
- Kazetari berrientzat aukera ezin hobea izango da lanean hasteko eta beren lumak trebatzeko. Alde horretatik, idazle berrien **harrobi** gerta litezke esperientziok. Nolanahi ere, hasierako pausoak ez dira errazak izango, baldin eta gauza txukun eta irakurgarriak egin nahi badira. Bidea ibilian egingo da noski, baina on litzateke oraindaino antzeko esperientziek zer eman duten kritikoki ebaluatzea, beti harri berean **behaztopa ez egiteko.**
- Esanak esan, ez gaitezen engania. Aipatu ditugun proiektuen artean ez dago eguneroko egunkari baten asmorik, eta hortxe dago zuloa. Azken urteotan hainbeste aipatu den euskal egunkaria noizko? Eta horrekin batera euskal ajentziarena dago, honek euskal kazetaritza osoari biziro eragingo liokeelarik. Benetako **jauzia** euskal kazetaritzan bi bide hauetatik letorke, besteak betegarri edo adabaki gisa gehiago ikusten ditugularik.



GEHIGARRI:—*Suplemento.*
GAUZATU.—*Concretar, plasmar.*
TREBATU.—*Gai bihurtu.*
ZAILU.—*Agil.*
JAI DU.—*Ez du zer eginik.*
ERAKARRI.—*Atraer.*
HARROBI.—*Cantera.*
BEHAZTOPA EZ EGITEKO.—*Para no tropezar.*
JAUZI.—*Salto.*



6
PAKO IBAÑEZ: PARISTIK DATORREN ARTISTA EUSKALDUNA



12
ETB-ko "BAI HORIXE"-REN LAGUN-GARRIAK

22
ROCKAREN ZIRKOA



26
GURE GEOGRAFIAREN BITXIKERIAK (II)
Urduña bizkaitar herria, hanka bat Araban eta bestea Burgosen



27
ELENA IRURETA: MIKAELA-TXINTXARRI BAT ANTZERKI EGITEN

36
IKASLEA IRAKASLE

Eta abar luze bat: euskararen kutxa, komikia...

HABE

HABE. Euskara ikasten ari garenon aldizkari mailakatua.
ARGITARATZAILEA:
Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea.
Zuzendaria: Iñaki Ugalde
Erredazioa: Beatriz Azpiri
Asis Eizmendi
Iñaki Iñurrieta
Joxe Lizarralde
Imanol Unzurrunzaga
Mailakatzailea: Lourdes Elosegi
Marrazkigilea: Enrike Larrarte
Idazkaria: Goretti Amundarain.
Moldaketa eta eraketa:
Fotocomposición: RALI, S. A.
Publicaciones FHER, S. A.
Camilo Villabaso, 9
Apartado 362 - BILBO
Legezko Gordailua:
BI. 2251/81

HABE euskara ikasten ari garenon aldizkaria

HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak: .....

Kalea: .....

Zenbakia: .....

Herria: .....

Probintzia: .....

HABE aldizkaria jaso nahi dut etxean. (Urtean hogeita bi ale: 2.500 pezeta-200 libera).
Honela ordainduko dut: Kontu korronte bidez.

Hauxe da: **Bankua edo Aurrezki-Kutxa** .....

Sukurtsala .....

Zenbakia .....

Helbide honetara bidali behar da: **HABE aldizkaria - Reina Regente, 2-1.ª. 20003 DONOSTIA**

MENPEKOTASUN ITSUA

Zuzendarien esanetara egotea edo haien aginduak betetzea sarritan egokia eta beharrezkoa izan ohi da: Baina menpekotasun edo obedientzia ezin daiteke itsua izan, zentzuzkoa baizik. Eta honek bizibiderik zorrotzenetan dihardutenentzat ere balio du, adibidez, gudagizonentzat.

Austriar idazle ospetsua zen Stefen Zweig-ek (1881-1942), 1924. urtean argitaratutako "Momentos estelares de la humanidad" liburuaren lehenengo atalean, hauxe frogatu nahi du. Eta horretarako, Waterloo-ko **gatazka** garrantzitsuaren gertaera bat kontatzen du. Waterloo-n, 1815.eko ekainean, Napoleonek Grouchy mariskalari, atzeraka jotzen ari zen gudatalde prusiar bati **orpoz-orpo jarraitzeko** agindu zion, atzetik zirikatu eta zigortzeko, eta ahal zen neurrian ezereztatzeko, alegia. Baina ihesari emate hura **segada** bat besterik ez zen. Grouchy-k bere gudataldearekin, bideko hautsa harrotuz, aurrera jo zuen. Ez zituen, ordea, **arerioak** inon aurkitu.

Bitartean, prusiar haiek Blücher jeneralaren agintepean, beste bidetik eta abiada haundiz Waterloo-ko zelaietara itzuli ziren. Grouchy-k, ordea, Enperadorearen agindua itsuitsuan betez, aurrera jarraitu zuen, ikusezinezko prusiarren bila. Azkenean, Waterloo-ra itzuli zenean, dena galduta zegoen Napoleonentzat. Eta Europa menperatu zuen agintariak makurtu behar izan zuen.

Grouchy mariskalaren gehiegizko obedientziak Europa guztiaren etorkizuna aldatu zuela esan genezake. Napoleonek berak behintzat **porrokaldiaren** errua Grouchy-ri leporatu zion.

Bi urte lehenago, Independentzia izeneko guduan, menpekotasun itsuak ere zentzuzko arrazoiak gainditu zituen. Frantsesen agintepean zegoen Donostiaz jabetzeko, Wellington jeneralak **ekialdeko harresiak** zulatuz egin behar zela erabaki zuen. Mendizabal jeneral euskaldunak, ordea, asmo hobea zeukan, **hots,** britainiarren itsasuntzien nagusitasun osoaz baliatuz, itsasotik Urgull mendiaren iparraldea menperatzea. Ez zioten, ordea, **jaramonik egin.** Mendizabalen egitamuari jarraitu baliote, 1813.eko abuztuaren 31eko egun dolugarri hartan hil ziren 1.200 donostiarren eta milaka eta milaka soldadu eta ofizialen biziak salbatuko zituzten. Eta gure hiriak zutik iraungo zuen.

IMANOL ZALDUA AZKARATE



gu galdezka

OPTIMISTAK ETA PESIMISTAK

Optimistak botilari begiratu eta erdi-beteta dagoela esango dizu; pesimistak, berriz, erdi-hutsik. Hori aspaldiko kontua da. Orain, ordea, optimistari eta pesimistari buruzko definizioak ari dira ugaltzen. Egia esateko, gehienak pesimistari buruzkoak dira. Pesimista eskutan datuak dituen optimista omen da. Beste batzuk diotenez, optimista gezurretan ari den pesimista da.

Definizioak aparte, bada alderik jendearen artean. Batzuk dena beltz ikusten dute, beste batzuk dena edo ia dena urdin. Batzu orratz gainean edo permisoa eskatuz bezala dabiltza munduan; beste batzu, berriz, natural bizi dira. Batzu **ditare** batean itotzen dira; beste batzu **aparra** bezala (ala kortxoa bezala?) beti gainean gelditzen dira.

Pesimistari optimista **kaskarina** edo **ezjakina** iruditzen zaio. Alderantziz, optimistarentzat pesimista tipo errea edo zinikoa izango da, agian.

Ez da erraza zulo honetatik ateratzea. Izan ere, bakoitza den bezalakoa da eta ez dago bueltarik. Bakoitzak bere bakoizkeriak. Azkenean, humore kontua da, alegia, zernolako **orez** eta **gibelez** egina dagoen gizona (umorea edo aldartea gure barruko humoreetatik dator). Horrek agintzen du gure baitan, horren arabera mugitzen gara. Esan nahi da gure ordenagailua programatua dagoela jadanik, tabernetako makina horiek bezala.

—Orduan zer? Dena kromosoma eta gene kontua al da?

—Ez dugu hori esan, baina badirudi holako zerbait gertatzen dela.

—Jasoak gaude, hortaz.

—Jasoak edo jausiak, eutsi egin behar goiari.

Hala ere, kontsola gaitezen: euskaldun asko ez dira ez optimistak eta ez pesimistak. Horiek, batzu baikorrak dira eta besteak ezkorrak.

—To!

JOXE LIZARRALDE

GATAZKA.—*Borroka.*
ORPOZ-ORPO JARRAITU.—*Seguir de cerca.*
SEGADA.—*Lazo, trampa.*
ARERIO.—*Etsaia.*
PORROKALDI.—*Desastre, derrota.*
EKIALDEKO HARRESIAK.—*Las murallas del Este.*
HOTS.—*Hau da.*
JARAMON EGIN.—*Hacer caso.*
DITARE.—*Dedal.*
APAR.—*Espuma.*
KASKARIN.—*Ligero de cascos.*
EZJAKIN.—*Ignorante.*
ORE.—*Masa.*
GIBEL.—*Higado.*

Pako Ibañez: "Karpak arteari espazio berria eskaintzen dio"

PARISTIK DATORREN ARTISTA EUSKALDUNA



❸ *"Euskalduna naiz. Hamalau urtez Adunan bizi ondoren, Frantziara eraman ninduten.* **Belardi** *bustiaren kolorea, Belkoain mendirako bide ertzeko iturriaren freskura, "Apakintza" baserriko usain aldakor eta beti bera... neure gogamenean itsatsirik daramatzat".*

Pako Ibañez, mundu guztian ezaguna den abeslaria, euskalduna denik ere ez daki hemen jende askok. Parisen bizi da eta handik noranahi mugitzen da, bere gitarra eta bere abestiekin. Euskal Herrian ahal bezain sarri eta luzaro etortzen da. Karparen amets biziarekin etorri zaigu oraingoan, eta karpak eman dio sarrera, hain zuzen, gure elkarrizketari.

—... Artistoi erabateko espresabide osoa, mugarik gabea, emango liguke karpak. Arte ekintza geureganatzea lortuko genuke; eta ez, beti bezala, besteen interesen menpean ibili; bitartekoen iritzi politiko eta espekulatiboak onartu beharrean... Ez dakit konturatu zaren baina, bitarteko kulturalak, ia denak, analfabetoak izan ohi dira. Karpak, espresabide irekiak eskaintzen dizkigu, dinamika zabalagoa. Laranja bat zer den nola esplikatu? Adierazi ezin dizudana zera da: karpa barnean zer sentitzen den. Nik esperimentatu dut, eta badakit karpan eta teatroan ez zarela artista bera. Espazioak **eraldatzen** zaitu haizea dabil aldamenean euria sentitzen duzu lona gainean tantaka, gero karparen **behin-behinekotasuna,** gaur muntatu etzi desmuntatu... guzti horrek arteari espazio berria eskaintzen dio. Karparena Oteizak ulertuko lidake inork baino hobeto.

GALDERA.—Nondik datorkizu abesteko dohaia?

"Karparena, inork baino hobeto Oteizak ulertuko lidake"

ERANTZUNA.—Txikitan, gogoratzen dut, Adunako Belkoainera eramaten nituen behiak; bidean kantari joaten nintzen. Garai hartan besteen kantuak kantatzen nituen neure gozamenerako. Harrez gero prozesu luzea izan da, neure kantuak besteei eskaintzera iritsi arte. Bideak ibilian egiten omen dira; kantuak, berriz, kantatuz.

BELARDI.—*Prado.*
ERALDATU.—*Transformar.*
BEHIN-BEHINEKOTASUN.—*Provisionalidad.*

G.—Nolakoa izan da zure abestien eboluzioa, tematika aldetik eta musika aldetik?

E.—Lehen urratsak bide lirikoan egin nituen: berez kantatzen duten poemak. Gero, ingurugiroaren kontzientzia hartuz zoazen neurrian, zeure burua konprometatzen duzu, eta **edukiak** eta melodiak ere aldatzen dituzu.

G.—Melodi berri bat nola jaiotzen da?

E.—Aztertu ezineko prozesu misteriotsu bat da. "Skaner"rak ez dizu balio; baina hor dagoen zerbait da. Ez dakizu nola, nondik, zergatik, baina lore bat bezala lehertzen da **zure baitan,** sentipenaren, barne egoeraren, oroimenen, bibrazioen ondorio.

PLASTIKOZKO MELOIA EMAN NAHI DIGUTE JATEN

G.—Zein motatakoa da zuri atsegin zaizun melodia hori?

E.—Melodia lineala zait ikaragarri atsegin. Salmudiaren oihartzunak zoratzen nau. Berdin zait gregorianoa, nahiz Koranaren bertsoak kantatzen dituen Abdel Baset abeslari egizpzioa, edo musulmanen musika "sufi" delakoa... munduaz kanpotik datozen doinuak dira. Ez duzu **tutik** ulertzen, baina ahotsak, musikak eramaten zaitu hortik zehar, kosmosean barna. Noizean behin halako bidaiak erabat erlaxatzen zaitu.

G.—Inoiz entzun dugu zuk "patapum" deritzozun musikari egiten diozun kritika gogorra.

E.—Bai hori musikarem ordez eman nahi diguten faltsukeria bat da. Plastikozko meloia eman nahi digute jaten.

G.—Baina zein musikaz ari zara? Rock-az agian?

E.—Ez. Rocktzat eman nahi diguten **zaborreria** horretaz. Mailuka eta mailuka barnetik hausten zaituen zerbait da, gezurrezko rock deskafeinatua, errazkeria...; fabriketan "enlatatutako", txakurjana. Txakurrentzako musika azken finean, ez gizasemeentzat. Eta gu konturatu ere gabe, txakurkeria hori ematen digute etengabe, komunikabide guztietatik; **burmuinak** husten dizkigute...



"Ezinbesteko frustrazioa daramat nere baitan".

BASO BAT ARDO BEZALA, JENDEAK EDAN ETA HUTSIK UZTEN ZAITU

G.—Zer da zure ofizioan gogorrena?

E.—Bidean uzten duzuna. Sarritan, eman nezakeena ingurugiroko eragozpenen poderioz ezin emana. **Otarre** batez ur bila doanaren itxura ematen diot sarri neure buruari. Ezinbesteko frustrazioa daramat nere baitan, emanaldi arrakastatsuen ondoren ere; jendetzak entzun zaitu gogoz; entzulegoarekin bat egin duzu... baina azkenik jendea joan egiten da, eta zu takilatik txeke bila pasa eta berriro bakar-bakarrik, zeure frustrazioarekin. Baso bat ardo bezala zara; jendeak edan zaitu eta kalera doa, basoa hutsik mahai gainean utzita.

G.—Zerk inposatzen du arrakasta?

"Inkisizioak suteak pizten zituen. Orain, berriz, diskotekak zabaltzen dira, kultura eta artea hondatzeko"

E.—Diruak, multinazionalek, politikoek... Jendeak itsu iraun dezan komeni zaien botere guztiek. Gaur ez du zentsurak, lehen bezala, **artaziz** funtzionatzen; gaur publikazioa debekatu ordez, publikatu egiten dizute baina letra txikiz, edota lerro artean, inork irakurriko ez duen tokian. Zen-

EDUKI.—*Contenido.*
ZURE BAITAN.—*Zure barruan.*
TUTIK.—*Ezertxo ere.*
ZABORRERIA.—*Basura.*
BURMUIN.—*Cerebro.*
OTARRE.—*Cesto, canasta.*
ARTAZIAK.—*Guraizeak. Tijeras.*



"Ikaragarrizko 'paketea' diot edonongo telebisioari".

tsura mota hau askoz ere maltzurragoa eta pozoitsuagoa da. Lehen Inkisizioak suak egiten zituen, orain berriz diskotekak egiten dira, kultura eta artea "hondatzeko entrepresak". Gazteriaren deskontentua eta **etsimendua** aprobetxatuz, edozer gauzaz betetzen dute hutsune hori.

G.—Kantautoreen aroa pasa ote den inpresioa daukagu.

"Euskaldunok manipulatzen ikasi behar dugun bonba euskara da"

E.—Ez inpresioa bakarrik. Errealitatea ere halaxe da, zoritzarrez. Historiaren gorabeherak dira; aldi dekadente bat igarotzen ari gara eta dekadentzia hori horrela ere azaltzen da. Goitik inposatutako dekadentzia honen aurrean egin dezakegun gauza bakarra ez onartzea da; eta arlo artistikoaren gainbeherakada hau beste hainbat arlotara zabaltzen ari da.

ZARTADAKA, MAILUKA MUSIKA EGIN NAHI

G.—Zein musika mota gustatzen zaio gaurko gazteriari?

E.—Nik ez diot "musika" deitzen horri, baina gazteria gehienbat "patapum"aren atzetik doa. Hori niretzat bonbardeoa, zarata, marrua, musika mailuka egin nahia da. Ezertara eramaten ez zaituen hotsa, ez pentsatzera, ez sentitzera... mugitzera bakarrik, eta hori da errazena; eskeletoari eragin, eta zerebroa ere eskeleto **bilakatzen** da. Nik ez diot zarata mota horrek existitzerik merezi ez duenik; proportzioa kontua da azken finean. Lehen adibidez, 60 %ren bat zen "patapum" hori. Orain, ordea, ez da besterik entzuten; "patapum"aren diktadurapean bizi gara. Sentsibilitaterik gabeko gizaseme berri bat sortzen ari da burrunba horren ondorioz.

G.—Telebistari jarraitzen al diozu?

E.—Ikaragarrizko "paketea" diot edonongo telebisioari. Ezin naiz aparailuaren aurrean egon; eta badakit programa onak ere galtzen ditudala... baina ezinezkoa zait. Alienazio tresna bat besterik ez da. Desafio hau egingo nioke nik munduko edozein Gobernuri: ea zein den kapaz, urtebetez edo hilabetez, jendeari telebista kendu eta bakeune bat emateko. Jendea bata besteagandik apartatzeko, gizarte elkartasuna apurtzeko inbenturik zitalena telebista izan da munduan. Niri ardoa, koñaka, orujoa gustatzen zaizkit, baina egun osoa ematen badut edaten gustatzen zaidalako... horixe gertatzen zaio jendeari telebistarekin. Orduak eta orduak tresnari begira eta azkenik tresnak pertsona **irentsi** egiten du, pentsatzeko, hautatzeko, erabakiak hartzeko orduan.

INOREN ETA EZEREN AURREAN MAKURTU EZ DENAREN ASKATASUNA

G.—Jendearen esamesei eta kritikei beldur diezu?

E.—Ezta batere. Nere bizitzako 50 urteetan askatasun hori lortu dut. Gauza bat kontatuko dizut; duela gutxi Parisen, aspaldian ikusi ez nuen lagun zahar batekin topo egin nuen. Gau osoan handik eta hemendik lagunen etxeetan eta ibili ondoren, goizaldian "cafe crème-croissant" bat gosaltzera joan ginenean, croissana ordaintzeko dirudik ez geneukan; bion artean, kafetarako justu-justu. Han hasi ginen biok poltsiko guztiak **arakatzen** ea txanponka-txanponka kopurutxo hori osatzen genuen. Azkenean nolabait egin genuen. Egia esango dizut kafesnetan bustita aho-

ETSIMENDU.—*Desesperación.*
BILAKATU.—*Bihurtu.*
IRENTSI.—*Tragar.*
ARAKATU.—*Miatu. Registrar.*

ra neramala, croissana hitzegiten hasi zitzaidan: "Zorionak motel!-esan zidan inoren interesetara **makurtu** ez haizelako!". Eta halaxe da. Nik ez diet inoren esamesei beldurrik. Ni ez naiz inoren aurrean ikaraz **kokildu.** Askatasun hau munduko diru guztiak baino gehiago baloratzen dut.

G.—Nongoa sentitzen da Pako Ibañez? Euskalduna, espainola, frantsesa?

"Neure abestien testua idazteko ez naiz gauza sentitzen. Horra nire bizitzako arantza"

E.—Denetarik. Bizipenek osatzen dute gure nortasuna. Adunan jaio nintzen eta bertan bizi 14 urtez, eta hona etortzen naizenean hemengo usaia, eguraldia, paisaia, euria... neure neureak sentitzen ditut. Ez zait berdin Frankfurteko euria eta Donostiakoa. Parisen ere urte mordoa eman dut eta "Bonjour madame" entzuteak halako **zirrara** egiten dit, euskaldunen "BAI" hitzak hunkitzen nauen bezalaxe. Euskaldunok BAI esaten dugunean, erdarazko "oui" edo "si" baino zerbait borobilagoa adierazten dugu. BAI horrek ez du aitzakiarik, ez dudarik, ez atzera biderik... Tamalez, Donostian ez da hainbeste BAI entzuten. Eta kontuz! Gure Herriaren memoria hizkuntzak gorderik dauka. Euskara galduz gero, euskaldunok dena galdu dugu; gure izakeraren euskarria hizkuntzaren baitan dago. Jendeari hori jakinerazi behar zaio: Euskadik iraungo badu, euskaraz beharko du, ez dago beste modurik. Eta euskara gaisorik, oso larri dabil, hizkuntz kolonizatzailearen atzaparretan. Eta horren aurka euskaldunok borroka egin behar dugu; ez bonbaz eta jendea hilez, gure izatea zapaltzen ez utziz baizik. Bonbak maneiatzen ikastea euskaraz mintzatzen ikastea baino askoz errazagoa da. Euskaldunok manipulatzen ikasi behar dugun bonba euskara da. Horretaz ohartzen ez bagara, "adio ene maitia, adio sekulako!".



"Euskara galduz gero, euskaldunok dena galdu dugu".

ZITEKEENA ETA IZAN EZ DENAREN DAMU NAIZ

G.—Zure haurtzaroko oroitzapenak.

E.—Apakintza, Aduna, Andoain, Donosti...

Nire amak Donostian, jostun lana egiten zuen. Apakintzatik hona infernutik zerura etortzea zen... Adunako bideak ditut gogoan; osabari mendira bazkaria eramaten nionean, bide ertzeko iturriaren oroitzapen bizi bizia gorde dut. Baserriko usaia, lur bustia, euria, Donostiako lanbroa **izekokin** esne banatzen ibiltzen ginenean, estropadak... Koloreak eta usainak gertatu zaizkit gogamenean itsatsita.

G.—Atzera begira, zertaz damutzen zara?

E.—Egin ez dudanaren damu naiz; zitekeena eta izan ez denarena.

G.—Zure bizitzan, nahi eta ezin izan duzuna?

E.—Beti nahi izan dut neure abestien textua idatzi, baina ez naiz horretarako gauza sentitzen. Horra nire bizitzako arantza.

G.—Non kantatzen duzu gustorago, teatroan, plazan ala frontoian.

E.—Karpan!...

MAKURTU.—*Doblegarse.*
KOKILDU.—*Beldurtu, ikaratu.*
ZIRRARA.—*Zastakoa. Impresión, conmoción.*
IZEKO.—*Izeba.*

ADISKIDETASUNA, GAZTERIAREN GILTZA BAKARRA

zinea

"El te en el Harem de Arquímedes", Mehdi Chareff-en lehen lana, izan zen Cannesko 1985.eko zine jaialdiko sorpresarik atseginenetako bat.

Frantzian emigrante den zinegile argeliar honek gaurregungo gazteria emigrante eta frantziarraren ikuspegi **hunkigarri** *eta freskoa eskaintzen digu. Baina ez du zalaparta handiren beharrik izan horretarako, sentiberatasunez betetzen bait du* **bitarteko urrien** *hutsunea.*



ETORKIZUNIK GABEKO GAZTERIA

Mendebaleko gizarte kapitalista etorkizunik gabeko gazteen **belaunaldia** sortzen ari da, batez ere langileen artean. Gazteria zereginik gabe bizi da; ez dute lanik ezta ezertarako ilusiorik ere. Dena ilun ikusten dute eta ezerk ez die ametsik pizten.

Lana, egoera ekonomiko lasaia eta famili bizitza finkoa bezalako baloreak **eskuraezinak** dira gizarte honetan. Tradizioa edo bizitza ulertzeko modu batek ematen duen ziurtasuna ere ukatu egiten da hemen.

Oinarririk eta ziurtasunik gabeko egoeran mugitzen dira, **txotxongiloak** bezala ia, gazte talde bateko lagunak. Frantziar bat eta arabiar bat dira pertsonaia nagusiak, biak Lanbide Eskolatik langabeziara joandakoak.

Elkarren arteko adiskidetasuna da horien balore bakarra. Familia, maitasuna eta lana ere **gutxiesten** dutelarik, adiskidetasuna da baztertzen dituen gizarte honetan irauteko salbazio bakarra. Hori dela eta, inolako sakrifiziorik egiteko gai ez diren arren. adiskidetasuna arriskuan ez jartzeagatik, beren bizia ere jokatzeko prest daude.

Eskema tematiko hau abiapuntutzat hartuta, ez litzateke batere harrigarria izango tratamendu moralista edo manikeoa ematea. Baina gauzak ez dira horrela gertatu. Zinegile gazte honek moralismorik gabeko lan freskoa eskaintzen du, bi protagonistan interpretazio bikainak biziki laguntzen duelarik. Bien lanaren sinpletasun eta naturaltasunari esker, pertsonaiak hezur eta haragizko pertsonak irudi-

tzen zaizkigu, zine-aretoan gaudenean behintzat. Errespetua zor diegu eta, zenbaitetan haien jokabidea ez ulertu arren, maite ere maite egiten ditugu.

J. M. GUTIERREZ

HUNKIGARRI.—*Emocionante.*
BITARTEKO URRIAK.—*Medios escasos.*
BELAUNALDI.—*Generación.*
ESKURAEZINAK.—*Inalcanzables.*
TXOTXONGILO.—*Títere.*
GUTXIETSI.—*Menospreciar.*



Programa hau HABE-k egina da eta Euskal Telebistan ikusiko da, urriaren 14ean hasita.

EUSKARA IKASTEN HASTEKO, "BAI HORIXE"

HABE-k euskararen irakaskuntzan telebista ere erabiltzea beharrezko dela ikusiz, "Bai horixe" telesaioa moldatu du Euskal Telebistaz eskaintzeko. Berrogeitamar mila ikasle ari dira euskara ikasten Euskal Herriko euskaltègietan, baina askoz ere gehiago dira ikasteko lehen pausua oraindik eman ez dutenak. Batez ere hauei begira egin da "Bai horixe".



Atsedenaldia grabaketa lanetan.

"Bai horixe" ez da metodo oso bat bezala sortu. Hau da, ez da erdaldun bat erabat euskalduntzeko metodoa, euskara ikasten hasteko **bultzada** baizik. **Izan ere,** asko dira euskara ikasteko gogoa azaltzen dutenak, baina ez dira hasten. Hauek animatu nahi ditu "Bai horixe" programak.

Egunkarietan eta aldizkari honetan ariketa-orriak azalduko dira.

30 EMANALDI LEHEN URRATSARI LOTUAK

Zerbait ikasi dutenei ere **ondo baino hobeto** etorriko zaie, ikasi duten **apurra** finkatzeko. "Bai horixe"ren 30 **emanaldiak** HABE-k egindako euskalduntzeko programazioaren lehen urratsarekin **estu-estu** loturik daude eta lehendabiziko 10 saioak abendura bitartean emango dira. Guzti hau euskaltegietan ikasten ari direnentzat ere **baliagarri** izango da.

Emanaldi bakoitzak 5 atal izango ditu:

Lehenengo atalean bizitzako egoera normal bat aurkeztuko da, eguneroko gorabeheretan euskara erabiltzeko aukera ematen duen egoera normal bat. Bigarrenean hiztegia landuko da, telesaioko elkarrizketak ulertzeko hiztegia. Hirugarrenean egitura gramatikalak **jorratuko** dira. Laugarrenean zenbait esamolde eskainiko dira, elkarrizketa hobeto ulertzeko. Azkeneko atalean fikziozko istorio bat azalduko da, aurreko ataletan ikasitakoa finkatzeko.

ASTERO BATZUTAN ZATIKA, BI ALDIZ OSORIK

"Bai horixe" programa Euskal Telebistan azalduko da, urriaren 14ean hasita. Ikastunitate bakoitza batzutan **atalez atal** eskainiko da astean zehar. Astelehen eta ostegunetan, ordea, asteari **dagokion** ikastunitatea osorik ikusiko da.

Euskara hobeto ezagutzen duenaren laguntza onuragarria izango da.

Ikusleak programaren edukiak hobeto ikasteko, ariketa-orriak argitaratuko dira egunkarietan eta aldizkari honetan, horrela emanaldiaren edukiak hobeto finkatzeko asmoz.

Euskara dakitenek parte har dezakete, ingurukoei ariketak egiten lagunduz eta zailtasunak argituz. Euskara hobeto ezagutzen duenaren laguntza **onuragarria** izango da.

LEHIAKETA ERE IZANGO DA

Lehiaketa ere izango da "Bai horixe"ren inguruan. Emanaldi bakoitzeko lehen atalean pertsona ezagun bat azalduko da. Galdera bat egingo da egunkarietan azaldutako pertsona horri buruz. Lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek erantzuna bidali beharko dute, eta zuzen erantzun dutenen artean sari baten **zozketa** egingo da.

BULTZADA.—*Empujón.*
IZAN ERE.—*En efecto.*
ONDO BAINO HOBETO.—*Oso ondo, ezin hobeto.*
APUR.—*Pizarra, xamarra.*
EMANALDI.—*Telesaioa, ekitaldia.*
ESTU-ESTU.—*Oso estu, hertsiki. Hitzak errepikatuz egiten du, besteak beste superlatiboa euskarak; handi-handia, beltz-beltza...*
JORRATU.—*Landu.*
BALIAGARRI.—*Probetxugarria, balio duena.*
ATALEZ ATAL.—*Capítulo por capítulo.*
DAGOKION.—*Tokatzen zaion.*
ONURAGARRI.—*Probetxua ematen duena.*
ZOZKETA.—*Sorteo.*

1. Euskaltegian

Rellena la ficha con tus datos



2. Hiztegia

Haz corresponder cada palabra con su imagen











1. Ikaslea
2. Polita
3. Laguna
4. Itsusia
5. Haundia
6. Zaharra
7. Txikia
8. Euskaltegia
9. Berria
10. Eseri











3. Izan

(naiz, zara, da)

ELIGE
LA RESPUESTA
ADECUADA

1) **Zer naiz**  **ni?**

a. Zu ikaslea zara
b. Zu irakaslea zara
c. Zu pilotaria zara

2) **Zer zara**  **zu?**

a. Ni aizkolaria naiz
b. Ni boxeolaria naiz
c. Ni ikaslea naiz

3) **Zer da Sofia Loren, gizona ala emakumea?**

a. Sofia Loren emakumea da
b. Sofia Loren gizona da

4) **Zer da Karmelo Elizondo, ikaslea ala irakaslea?**

a. Karmelo Elizondo ikaslea da
b. Karmelo Elizondo irakaslea da

5) **Nor da**  **hau, Martin ala Patxi?**

a. Hau Martin da
b. Hau Patxi da

6) **Nor da**  **hori, Graxi ala Izaskun?**

a. Hori Izaskun da
b. Hori Graxi da

7) **Nor da**  **hura, Xabier Elorriaga ala Marlon Brando?**

a. Hura Marlon Brando da
b. Hura Xabier Elorriaga da

4. Auskalo !

Completa la viñeta



5. Istorioa

Completa el diálogo

Mut.–EGUN ON. HARTU.
Nes.–ESKERRIK ASKO.
Mut.–POLITA DA?
Nes.–... BAI. _ _ _ _ _ _ _ _ _ ?
Mut.–ONDO. BERRIA DA?
Nes.–EZ.
Mut.–ZAHARRA _ _ .
Nes.–EZ.
Mut.–ESERI.
Nes.–ESKERRIK ASKO.
Mut.–KAFEA?
Nesi–BAI, KAFEA.
Zer.–BAI?
Mut.–BI KAFE.
Zer.–HUTSA _ _ _ KORTADUA?
Mut.–HUTSA.
Nes.–ETA KORTADUA.
Zer.–ONGI.
Mut.–HAUNDIA DA, EZTA?
Nes.–BAI.
Mut.–EZ?
Zer.–PETRA GARRO, PETRA GARRO, MESEDEZ.
Zer.–ZU _ _ _ _ ?
Nes.–BAI. _ _ NAIZ.
Zer.–TELEFONOA.
Mut.–... ETA?
Zer.–EHUN PEZETA.
Mut.–HARTU.
Nes.–... AMA.
Mut.–NOR?
Nes.–AMA!
Mut.–PELIKULA _ _ _ BERRIA DA, EZTA?
Nes.–BAI, BERRIA DA.
Mut.–POLITA, EZTA?
Nes.– _ _ _ _ POLITA?
Mut.–BAI.
Mut.–HURA BAI. _ _ _ _ PELIKULA POLITA DA.
Seb.–KAIXO!
Nes.–KAIXO, SEBASTIAN! ZER MODUZ?
Seb.–ONDO.
Nes.–ZINERA?
Seb.–BAI. ETA ZU?
Seb.–GERO ARTE.
Nes.–GERO ARTE.
Mut.–AGUR.
Mut.–NOR DA _ _ _ _ ?
NES.–HORI?
Mut.–BAI.
Nes.–SEBASTIAN.
Mut.– ... ETA _ _ _ _ _ SEBASTIAN?
Nes.–LAGUN ZAHAR BAT DA.

1. Bisitan

Ordena las frases del diálogo



–Ongi, ongi. Eta gurasoak?

–Arratsalde on.

–Zer? Senargaia?

–Laguna edo...

–Zer moduz, izeba?

–Haiek ere ongi. A, hau Ramon da.
Hau izeba Pilar da.

–Ez, ez da senargaia, ez.

1. .....

2. .....

3. .....

4. .....

.....

5. .....

6. .....

7. .....

2. Hiztegia

Haz corresponder los números con cada miembro de la familia





3. Izan

(gara, zarete, dira)

ELIGE
LA RESPUESTA
ADECUADA

1) Hauek aitona eta amona dira  **?**

a. Ez, hauek seme-alabak dira.
b. Ez, hauek lagunak dira.
c. Ez, hauek gurasoak dira.

2) Horiek gurasoak dira  **?**

a. Bai, horiek gurasoak dira.
b. Ez, horiek ez dira gurasoak.
c. Ez, horiek aitonamonak dira.

3) Haiek lapurrak dira  **?**

a. Ez, haiek ez dira lapurrak.
b. Ez, haiek poliziak dira.
c. Ez, haiek gurasoak dira.

Completa las frases

4) Nortzu gara  **gu?**

a. ..... Patxi eta Graxi zarate.
b. Zuek irakasleak .....

5) Zer zarete zuek?

a. Gu ikasleak.....
b. ..... gazteak gara.

4. Auskalo !

Completa la viñeta



5. Istorioa

Completa el diálogo

Ema.–EZ. GU EZ GARA GURASOAK.
Giz.–KONTXI, PLATER _ _ _ _ _ POLITAK DIRA, EZTA?
Ats.–NI EZ NAIZ AMONA.
Mut.–TXITXARRO HAU EZ DA FRESKOA!
Mut.–ETA HAU EZ DA ALABA.
Nes.–ZU _ _ _ _ _ _ _ SEMEA.
Giz.–PURUAK EZ DIRA CUBANOAK.
Ins.–IREKI!
Lag.–AJ!
Ins.–ZER DA HORI?
Lag.–HAU ARRAIN-ZOPA DA.
Lag.–PURU _ _ _ _ _ _ _ FRANTSESAK DIRA.
Ins.–ZER DA HORI?
Lag.–...HAU? TOMATEA DA.
Lag.–ET, ET, ET...
Ins.–NI POLIZIA NAIZ.
Lag.–ETA GU ERE POLIZIAK _ _ _ _ .
Ins.–ZUEK NORTZU _ _ _ _ _ _ _ ?
Giz.–GU GURASOAK GARA.
Ama.–ETA HAUEK SEMEA ETA ALABAK.
Ins.–HORIEK _ _ _ _ _ _ _ LAPURRAK.
Lag.–ZEINTZU DIRA LAPURRAK?
Ins.– _ _ _ _ _ _ DIRA LAPURRAK.

Astean behin bi egunkari eta bi suplemento kalean, euskara hutsean

EUSKARAZKO KAZETAGINTZAREN BOOM-A

Eusko Jaurlaritzak, **besteak beste,** *bere garaian sortu eta bultzatu ditu irrati, telebista, liburugintza, zinemagintza... etab... euskarazko komunikabideen* **mesedetan.** *"Euskal Egunkaria noiz?" galderak makina bat mahai-inguru, artikulu, hitzaldiri eman dio gaia. Oraingoan badirudi galdera horri erantzuteko lehen urratsak egiten hasiak garela. Euskal egunkarigintzaren "boom"aren aurrean gaude.*



PROIEKTU HAUEN HISTORIA

Euskal Egunkaria planteatzerakoan bi aukera aurkezten ziren, konkurtsu publikoa, edo egunkari guztiei aukera bat eskaintzea. Konkurtsu bideari kritika **latza** egin zitzaion, aldez aurretik: ideologia politiko baten menpean irtengo zen egunkaria, lehendik **murritza** den euskaldun irakurlegoa gehiago zatituz. Kalitate aldetik ere ezin zen askorik espero.

Bigarren bidetik jotzea erabaki zuen Euskararen Arazoetarako Zuzendaritzak. Ildo horretatik, Komunitate Autonomoko egunkari guztiei egin zitzaien eskeintza bera: astean behin egunkari osoa euskara hutsean ateratzeagatik, irailetik abendura arte sei milioi t'erdiko dirulaguntza eskaintzen zitzaien.

DIRULAGUNTZA JASOTZEKO BALDINTZAK

DEIAk eta EGINek baietz erantzun diote Jaurlaritzari. Bakoitzak bere euskal egunkariaren **egitaraua** aurkeztu du eta biak izan dira onartuak baldintza batzuren pean:

Komunitate Autonomoko egunkari guztiei egin zaie eskaintza bera.

— **Ezin izango dute** biek egun berean egunkaria kaleratu, horrela, euskal irakurlegoak astean bi egunetako aukera izango du.

BESTEAK BESTE.—*Beste zenbait gauzaren artean.*
MESEDETAN.—*Onerako.*
LATZ.—*Gogorra, mikatza.*
MURRITZ.—*Urria, motza.*
EGITARAUA.—*Programa.*
EZIN IZANGO DUTE.—*No podrán.*

– Hamar mila aleko tirada izango du gutxienik egunkariak eta Euskal Herri osoan zehar zabalduko da.

– Egunkariaren **edukiaren** 75 %-ak gutxienez aktualitatezkoa izan beharko du.

Urtebeteko esperientziaren ondoren emaitzak aztertuko dira aurrera begira.

– Urtebeteko esperientziaren ondoren emaitzak aztertuko dira aurrera begira.

BADIRA PROIEKTUAREN AURKA DAUDENAK

Kaleratu aurretik, proiektuek izan dituzte dagoeneko beren kritikak. Hona batzu:

– "Jaurlaritzaren enpeinua izan arren, astean behingo EGUNKARIAK badu euskaraz bere izen propioa: ASTEKARIA"

Badu kritikak ere bere erantzuna: "eguneroko egunkariarantz **behin behineko** urrats bat izan nahi du oraingoak. Bestalde, egunkariaren tratamendua eman nahi izan zaio **gaurkotasunaren** aldetik. Horregatik "astean behingo Egunkaria" izenari zilegi **deritzogu**".

– "Bi txar baino bat ona ez al da hobe?" galdetzen dute, DEIA eta EGINen artean euskal egunkari bat argitaratzea proposatzen dutenek.

Zer irakurria hor dago nork irakurriren zain.

Inoiz planteatu omen zuten bi egunkariok batera paperaren erosketa egitea, merkeago irtengo zitzaielako; eta horretan ere ezin **bat etorri**... **Lekutan** daude egunkaria elkar lanean argitaratzeko!

EL CORREO ESPAÑOL-REN ETA EL DIARIO VASCO-REN ASTEROKO SUPLEMENTOAK KALERA

Euskal prentsaren **lehia** honetan, DEIA eta EGINez aparte, Euskal Herriko beste egunkariak ere, nolabait konpetentziaren akuiluak **zirikaturik** edo, mugitzen ari dira. Gipuzkoan "EL DIARIO VASCO", Bizkaian "EL CORREO ESPAÑOL" astero euskarazko orri eranskinak ateratzera animatu dira.

Euskal Literaturaren Historia egiterakoan, 1986.eko iraila eta urria data nabarmenak izango dira. Horren epe laburrean halako **loraldia** euskal letratan ez da inoiz gertatu.

Lauki honetan ikus dezake irakurleak euskal prentsaren asmoak epe laburrera zeintzu diren:

	1.Alea	Eguna	Izena	Orrialdeak
DEIA	Urriak 5	IGANDEA	"EGUNA"	32
EGIN	Irailak 26	OSTIRALA	"HEMEN"	32
EL CORREO ESPAÑOL	Urriak 2	OSTEGUNA	"EL CORREO ESCOLAR" ASTEROKOA	6
EL DIARIO VASCO	Irailak 10	ASTEAZKENA	DV ZABALIK	8



Euskal Egunkariaren desafioa jaso du eta berari erantzuten ari zaio Euskararen Arazoetarako Zuzendaritza. Soluziorik onena ez bada ere, euskal irakurlegoa **lozorrotik** ateratzeko gauza balitz... Zer irakurria behintzat hor dago, nork irakurriko zain.

EDUKI.—*Contenido.*
BEHIN BEHINEKO.—*Provisional. Kontrakoa, behin betiko.*
GAURKOTASUN.—*Actualidad.*
ZILEGI DERITZOGU.—*Nos parece permitido.*
INOIZ.—*Noizbait. Alguna vez.*
BAT ETORRI.—*Ados jarri.*
LEKUTAN.—*En buen sitio.*
LEHIA.—*Norgehiagoka. Competencia.*
ZIRIKATU.—*Akuilatu. Aguijonear.*
LORALDI.—*Florecimiento.*
LOZORRO.—*Sueño profundo.*

1573 zientzilari ari ziren lanean Euskal Herriko Lurralde Autonomoan 1984.ean

GUREAN ERE IKERLARIEN BOLADAN GAUDE

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, ekainean, "Situación de la Investigación en la Comunidad Autonómica del País Vasco 1982-1984" liburua argitaratu zuen. Liburu honetan Ikerkuntza eta Garapenaren (I + G) berri ematen zaigu. 1982-84. urteetan aurrerapen nabaria izan du Euskal Herrian I + Gk, baina oraindik ez gara nazio aurreratuetan egokitzat jotzen den ikerketa mailara heldu. Hala ere, BPGaren (Barne Produktu Gordina) 0,5 %a I + Grako da, Estatuko maila gaindituz.



"Gizamat Z", Arrasaten egindako robota.

logikoei laguntza luzatu zietenean. Zentruok hauexek ziren IKERLAN, INASMET, TEKNIKER, CEIT eta LABEIN. 1982an Eusko Jaurlaritzak, errekurtso gehitze beharra kontuan izanik, "Ikerketa Teknologikoen Entitate Babeslea" deritzana sortu zuen eta lehen aipatutako bost zentruok hor sartu ziren.

Honi esker, izugarrizko aurrerapena ezagutu zuen I + G arloak, baina hala ere, azpiegitura, pertsonal zientifiko eta ekipamendu beharrean dago herri aurreratuen maila lortzeko. Dena dela, 1981ean Euskal Herria I + G arloan



Donostiako Ozeanografikoan.

I + GREN EGOERAREN BILAKAERA

Ikerkuntza eta Garapenaren egoera 1981a arte oso atzeraturik zegoen. Harrez gero, I + Gren input-en bilakaerak begi bistan egin du aurrera Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi eta beste erakundeen bultzadari esker, baita iniziatiba pribatuarenari ere.

1982an aldaketa sakona gertatu zen, fabrikatzaile, kooperatiba eta Eskola Teknikoen Elkarteek zentru tekno-

IKERKUNTZA.—*Investigación.*
GARAPEN.—*Desarrollo.*
AZPIEGITURA.—*Infraestructura.*

ez zen Estatuko mediara iristen eta 1984ean media hori gainditua zuen.

1981ean gure Ikerkuntza eta Garapen maila ez zen Estatuko mediara iristen eta 1984ean gainditua zuen

I + GREN EGOERA 1984EAN

Arestian aipatutakoari esker, I + Gk finantzatzaile gehiago izan zuen. Honela I + G egoeraren indikatzaile batzu, hauen artean zientzilarien kopurua biztanle milioi bakoitzeko eta BPGk ikerkuntzarako emandako portzentaiaren zifrak lau eta bost aldiz biderkatu dira. 1984.eko datuen arabera, 1.573 zientzilari ari dira lanean; honek, milioi bakoitzeko 720 zientzilari suposatzen du. BPGk, 1984ean, 0,5 %a eman zion ikerkuntzari. Hau da, indikatzaile bien (zientzilari eta BPGren) hazkundea 1982an hasi zen nabarmentzen 100 % baino gehiagoko gehikuntzaz.

zoiak Josu Aranbarri jaunak, Politika Zientifikoko Sailburuak, azaldu dizkigu:

"Toki bakoitzeko ezaugarriak izan behar dira kontuan. Euskal Herriko Autonomi Elkartean, industriak pisu handia du eta dagokion inportantzia eman behar zaio diru aldetik ere. Euskal Herria ez da nekazal herri bat eta horregatik nekazal produktibitate eta teknologiarako ematen den dirua beste herri batzutan baino gutxiago da":

"Euskal Herrian industriak pisu handia du eta dagokion inportantzia eman behar zaio diru aldetik ere"

Portzentaiei begira, media baino beherago dauden arloak hauexek dira: Ezagupenei ematen zaien bultzada, Osasuna babestu eta ondu, eta Energiaren produkzioa eta erabilera razionala. Aranbarri jaunak hau herri txikia izatearen ondorioa zela esan digu, eta honela jarraitu du:

XEDEA	Euskal Herriko Autonomi Elkartea	Europarekiko diferentzia	Alemania	Frantzia	Italia	Holanda	Belgika	Britaina Haundia	Irlanda	Dinamarka	Grezia
Lurraren esploraketa eta esplotazioa	0,5 %	−1,9	2,8 %	2,8 %	1,9 %	0,9 %	4,1 %	0,7 %	0,9 %	2,9 %	4,9 %
Ingurunearen plangintza	5,7 %	+2,4	3,9 %	3,7 %	0,9 %	6,0 %	3,5 %	1,4 %	5,8 %	3,2 %	1,9 %
Osasun babestu eta ondu	1,4 %	−5,4	5,9 %	5,5 %	4,6 %	5,1 %	17,1 %	2,2 %	3,8 %	11,4 %	6,4 %
Energiaren produkzioa eta erabilera razionala	2,0 %	−7,9	15,2 %	7,4 %	24,6 %	4,6 %	8,6 %	6,5 %	3,2 %	10,0 %	9,2 %
Nekazal produktibitatea eta teknologia	5,4 %	−5,2	2,0 %	3,9 %	3,0 %	7,5 %	4,7 %	3,9 %	31,0 %	9,5 %	30,0 %
Industrial produktibitatea eta teknologia	58,9 %	+47	10,9 %	8,8 %	18,6 %	8,0 %	14,7 %	7,7 %	18,7 %	16,2 %	4,0 %
Sozial eta soziologiko arazoak	4,3 %	−1,1	4,0 %	1,2 %	1,4 %	6,4 %	11,6 %	1,1 %	7,2 %	7,6 %	8,3 %
Espazioaren esploraketa eta esplotazioa	(*)		4,1 %	4,2 %	3,9 %	3,4 %	5,0 %	2,0 %	1,7 %	3,2 %	0,3 %
Defentsa	(*)		8,8 %	37,2 %	6,5 %	3,0 %	0,3 %	52,1 %	0,0 %	0,3 %	5,2 %
Ezagupenei bultzada	11,8 %	−21,4	42,2 %	24,6 %	32,4 %	54,2 %	29,7 %	22,4 %	27,8 %	35,6 %	29,9 %

Hala eta guztiz ere, Euskal Herriko Autonomi Elkarteak oraindik bide luze bat du aurretik BPGren 0,5a Europa eta Iparramerikako 2,25 %ean bihurtzeko.

Diru hau ikerketaren xedeen arabera banatzen da eta Europako beste herrialdeekin konparatuz, Euskal Herriko Autonomi Elkartea Industri produktibitate eta teknologian media baino 47 puntu gorago aurkitzen da. Honen arrazoiak Josu Aranbarri jaunak, Politika Zientifikoko Sailburuak, azaldu dizkigu:

"Ikerkuntzaren konpetentzia nahiz eta Gernikako Estatutuan egon, ez da oraindik praktikan jarri. Hala ere, egindako esfortzuei esker, Espainiako media baino gorago dago. Hau lortzeko inportanteena zera izan da, ikerkuntz institutuek industriari luzatu dioten laguntza. Horregatik, ikerkuntza bultzatzeko 1986/87 ikasturtean Eusko Jaurlaritzak 175 beka banatu ditu ikertzaileen artean".

ARESTIAN.—*Hace poco.*
BIDERKATU.—*Multiplicarse.*
HAZKUNDE.—*Crecimiento.*
GEHIKUNTZA.—*Aumento.*

Zure etsipenean ez zaude bakarrik

ITXAROPENAREN TELEFONOA

Telefono lagunaren zerbitzua, Espainian lehena, Bilbokoa izan zen, Aita Jesus Biain frantziskotar oñatiarraren eskutik, 1968. urteko otsailean. Autonomia kaletik Zabalburuko Plazara sartzean, aurrez-aurre ikusiko duzu "TELEFONO DE LA ESPERANZA-432.63.73" **iragarkia.**

Berrogei dei inguru izaten dituzte egunean, gehienak larri eta estu, soluziorik gabeko arazoak.



Jesus Biain frantziskotarrak antolatu zuen Bilbon lehen itxaropenaren telefonoa.

1968tik hona gure inguruko gauzak asko aldatu dira. Duela 16 urte, droga ez zen gaur bezalako problema. Bingorik, joko-makinarik ez zegoen; dibortzioa, abortoa, paroa... hitz zaharrak izan arren, azken urteotan erabili ditugu inoiz baino gehiago. Halere, drogarik ez baina alkoola bada; bingorik ez baina apustuak bai; dibortziorik ezean ere **egoera jasan ezinak** hor daude.

"Deien **zergatiak** ez du askorik aldatzen —esaten digu Aita Biainek. Lehen eta orain gehien deitzen dutenak pertsona bakartiak dira. Bakardadearen ondorioak ezagunak dira: depresioa, **etsipena,** angustia, **urduritasuna**... Eta ez pentsa zaharra soilik

IRAGARKI.—*Anuncio.*
EGOERA JASAN EZINAK.—*Situaciones insoportables.*
ZERGATI.—*Causa, por qué.*
ETSIPEN.—*Desesperación.*
URDURITASUN.—*Nerviosismo.*

denik gure artean bakardadea **pairatzen** duena. Gazteak ere sarritan datozkigu laguntza eske. Eta bakardaderik latzena biren arteko bakardadea da: elkarrekin bizi diren **ezkontideen** komunikaziorik eza".

Bakardaderik latzena elkarrekin bizi direnen komunikaziorik eza da.

Telefonoak konponezinak ez ditu konpontzen, ez dirurik, ez lanik eskaintzen; telefonoak pertsonarekiko lehen kontaktua izan nahi du. Telefono entzulearen atzetik langile taldea dago: zazpi abokatu, zazpi psikologo, hiru psikiatra, hamabi asistente sozial eta apaiz bat.

ZENBAIT TALDE SORTU DA TELEFONOAREN INGURUAN

Bestalde, zerbitzuari hobeto erantzun nahian, zenbait ekintza talde sortuz joan da azken urteotan: Alargunen Elkartea, Separatuen Elkartea, "Lagunik gabeko lagunak", Andereño atzeratuen **jostundegia,** "Asti emaileak"...



"Bai. Hogei durokoa eman eta lasai geratzea erosoegia da. Jende askok norbaiten beharra dauka, eta guk ez dugu astirik besteekin alferrik galtzeko. Behar duenari emandako astia ez da inoiz ere alferrik galdua.

Besteari entzuten ikasi beharra daukagu, giza harremanak hobetu nahi baditugu.

Horra, pobre izan arren edonork eman dezakeen laguntza bikaina!".

Eta halaxe sortu zen "Asti emaileen taldea". Lan orduez aparte, ordu batzu lagunurkoari eskaini nahi dizkion jendea. Tartean badira **iturginak,** pintatzaileak, elektrizistak, mekanikariak... behartsuei beren lana **dohainik** eskaintzen.

Telefonoaren berezitasunak hauek dira: **doaneko zerbitzua,** anonimoa eta egunean hogeitalau ordutakoa.

EGUNEAN 40 DEI INGURU

Kolaboratzaileen laguntza doanekoa izan arren, mota honetako zerbitzuak beti izaten ditu gastuak. Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Diputazioak, Bilboko Udalak eta partikularrek babesten eta diruz laguntzen dute.

Berrogei dei inguru izaten ditu Bilboko "Itxaropenaren Telefonoak", egunean, gehienak larri eta estu, soluziorik gabeko arazoak. Zer erantzun horiei?

Telefono entzulearen atzetik abokatuak, psikologoak, psikiatrak, asistente sozialak eta apaiz bat daude.

"Entzun eta entzun. Gizarteko harremanetan, gehiago entzuten ikasi behar dugu denok. Sarritan horixe besterik ez da eskatzen zaiguna. Soluziorik gabeko problema entzun behintzat egin diozu eta, besterik gabe, **zamaren astuna** arinago egin zaio".

PAIRATU.—*Sufrir.*
EZKONTIDE.—*Cónyuge.*
JOSTUNDEGI.—*Sastrería.*
ITURGIN.—*Fontanero.*
DOHAINIK.—*Gratis.*
DOANEKO ZERBITZUA.—*Servicio gratuito.*
ZAMAREN ASTUNA.—*El peso de la carga.*

ROCKAREN ZIRKOA

Lehengo umeei "zer izan nahi duzu handitan?" galdetu eta normala zen "domadore", "trapezista" edo "pailazo" bezalako erantzunak jasotzea. Zirkoa ilusio eta amets ugariren iturri izan da **belaunaldi** *askorentzat. Gaurregun, ordea, beste zirko mota batzuk hartu diote aurrea. Rockarenak, esate baterako. Gazte askoren ametsa* **eskenategi** *batera igo eta mundua konkistatzea da, kitarra eskuetan hartuta. Baina ez da erraza: mitoen industria handia dabil rockaren inguruan, milioiak eta milioiak mugitzen dituena, eta gutxi batzuk lortzen dute fortunaren karruselera igotzea.*



Lou Reed.

Pribilejiatu horientzat manager on bat behar-beharrezkoa da. Kontratuetan ez da agertzen bakarrik non eta noiz izango den **emanaldia,** zenbat eta nola kobratuko den. Beste mila gauza daude, eta manager prestu batek orri askotako idatzi batean zehazten ditu. Idatzi honen izena rider da. "Spandau Ballet" bezalako talde baten riderrak, adibidez, hogeitamar orrialde baino gehiago du.

Arazo tekniko guztiak, hala nola voltio eta watioen kontuak, foko eta mikrofonoenak, eskenategiaren neurriak, ordena zerbitzua, tailerren karga-deskargak eta abar hor azalduko dira, zalantzarik gabe. Baina badira beste alderdi batzu ere.

"Spandau Ballet"-en kontratuak, adibidez, hogeitamar orrialdetik gora du.

Esate baterako, jatorduen kontua. Rock izarren kontratuetan oso ondo zehazten da, baita bakoitzean zer sartuko den ere: gosari kontinentala ala ingelesa, zenbat bazkari bejetariano eta zenbat bestelako, txerrikirik nahi den ala ez, eta abar.

Inoiz falta izaten ez den beste pundu bat **garraioarena** da. Airepor-

BELAUNALDI.—*Generación.*
ESKENATEGI.—*Eszenatokia. Escenario.*
EMANALDI.—*Actuación.*
GARRAIO.—*Transporte.*

tutik hotelera, hoteletik musikaldi aretoa, hirian zehar mugitzea... nolako **ibilgailutan** egingo diren. Ia denek limousine-ak eskatzen dituzte.

Ia denek limousine-ak eskatzen dituzte.

Kamerinoak nola **apailatuta** egon behar duen ere zehatz-mehatz esango dizu riderrak. Keith Jarret-ek alfonbrak ipintzea exijitu zuen Mendizorrozako Polikiroldegiko **aldageletan.**



The cure.

Eta kamerinoan zein edari klase egon behar duen ere ezin falta. Hona Saderen riderrak dioena: bi litro laranja zumutik; tekila botila bat; "Smirnoff" vodka botila bat (etiketa urdina); "Jack Daniels" bourbon botila bat; "Red Stripe" edo "Foster" markako garagardo kaxa bat; lau txanpain botila (frantsesa, jakina); "Evian" edo "Perrier" markako ur minerala... eta, arratsaldeko seietan, dozena bat larrosa gorri, azal kanela eta ahots tertziopelozkoa duen Saderentzat.

ARTISTEN MANIATXOAK

Artistek betidanik izan dute exzentriko eta juergista fama. Azken urteotan, eta rock gogorraren alorrean batez ere, "sexua, drogak eta rock and roll" izan da lema nagusia, baina orain aldatzen hasia da hau ere pixkanaka-pixkanaka. Izan ere, "light"-aren moda **puri-purian** dago, eta rockaren munduan ere nabari da hau. Gaurregun izar askok ez du erretzen ez edaten, fruta zumuak eta ura ez bada, eta beren exzentrikotasuna bestela bideratzen dute.

Kirol zaletasunetik, esate baterako. Mike Oldfield bizikletan joaten zen entseiatzera Anoetako Belodromora. Pat Metheny, Gasteizko Jazz Jaialdian, footing eginez itzultzen zen hotelera. Batzutan hala ere, galdu egiten zen alde zaharreko kaleetan, eta denak estu eta larri zeudenean, han agertuko zen goizaldera, plater bat hautsi gabeko haurra bezain irribarretsu.

Beste batzu, kirolzaleak ez baina elizazaleak izaten dira. Behin talde batekoentzat exkursio bat antolatu behar izan zuten promotoreek, Donostiako elizak bisitatzeko. Donald, Rory Galager-en manager eta anaia, mozkor-mozkor eginda ikusi zuten goizaldera Gijongo emanaldiaren ondoren. **Biharamunean** Lekeition jo behar zuten, eta han agertu zen goizeko hamarretarako:



"non dago eliza?" denei galdezka, "gaur igandea da eta ez dut mezarik entzun".

"Light"-aren moda rockaren munduan ere zabaltzen ari da.

Dena den, oraindik bada diboarena egitea gustatzen zaionik. Ezaguna da Keith Jarret-ek Gasteizen egin zuena: alfonbrarenaz gainera, polikiroldegiko leihoak ixteko agindu zuen, hotzak zegoela eta (uztaila zen, 27º han barruan). Honez gainera, aktuazioan zehar ez zuen utzi zigarrorik erretzen, ezta argazkirik ateratzen ere. Horregatik, emanaldi erdian pianotik jaiki eta aldegin nahi izan zuenean, a zer bronka armatu zen!

IBILGAILU.—*Vehículo.*
APAILATU.—*Prestatu.*
ALDAGELA.—*Vestuario.*
PURI-PURIAN.—*Bizi-bizirik.*
BIHARAMUNEAN.—*Hurrengo egunean.*

Hau mundua...

ZURRUNGA DIBORTZIORAKO AITZAKIA

❸ Gehiago edo gutxiago, ozenago edo isilago, ia denok gara, noizean behin **bederen, zurrungalarien** koruko abeslari. Medizinak ez dio kasu handirik egin orain arte arazo honi eta **zurrungaren** gorabeherek matrimonio asko apurtzeko arriskuan ipini dituzte eta auzo askoren atsedena ere hondatu dute.

Noizbehinkakoen soluzioa otorrinoaren eskutan dago. Zurrungalari kronikoei (edota hauen ohe-lagunei) gauzak larriagotu egiten zaizkie. **Ahosabaiko** azal lasaegiaren bibrazioek ateratzen dituzte era guztietako soinuak. Batzutan jatorrizkoak izaten dira zurrungalariak, baina gehienetan bizimoduak, **elikadurak** eta abarrek eragindakoak. Nola kontrolatu?

– Afari oparorik ez, kopeorik ez, tabakorik ere ez.

– Gora begira loak hartzen bazaitu, zurrungaren bolumena biziagotu egingo zaizu. Pelota gogor bat josi pijamari sorbaldan.

– Zurrungalariek ahozabalik egiten dute lo. Horregatik mukosak lehortu egiten zaizkie. Espainian ez duzue oraingoz aurkituko, baina Iparraldera bueltatxo bat egiten baduzue, SONAREX erosi, ahoko **hezetasuna** mantentzeko likido aproposa.



BEDEREN.—*Gutxienez. Behintzat. Sikira.*
ZURRUNGALARI.—*El que ronca.*
ZURRUNGA.—*Ronquido.*
AHOSABAI.—*Paladar.*
ELIKADURA.—*Alimentación.*
HEZETASUN.—*Humedad.*

ZENBAT URTE HAINBAT KILOMETRO



TXIRRINDULARI KARNETA



Batetik bestera joateko, munduan den tresnarik erabiliena bizikleta da. ONUk emandako **datuen arabera,** 450 milioi pertsonak erabiltzen dute, Bizikletazaleak ez du inolako gidaripermisurik behar gaur gaurkoz; baina XIX mendearen bukaeran, Moskun ezin zen bizikletan ibili, horretarako permisurik gabe. Hain zuzen, 1896.eko otsailaren 21ean, Leon Tolstói idazle handiak agiri hau jaso zuen Moskuko Udaletik: "Hiriko kaleetan bizikletan ibiltzeko, 2.300 zenbakidun KARNETA; Leon Tolstoi konteari, beste inori emateko eskubiderik gabe". Moskuko Tolstoi museoan ikus dezakezu karnet hau.

Zure urtebetetze egunean ez dizula inork ere erregaliarik egin? Egon lasai! Nork bere buruari egiten dizkionak dira egokienak. Zure 50. urtebetetze egunez, berrogeitamar kilometro ibili ondoren, bihotza **taupadaka** lehertzen ez bazaizu, oinak **beruna** baino astunagoak sentitzen ez badituzu, **bejondeizula**! Zure zorionak urte askotako izango dira, daukazun osasunaren partetik behintzat. Footingzaleen ohitura da, urtean aina kilometro korrituz urtebetetze eguna ospatzea.

DATUEN ARABERA.—*Según los datos.* **BERUN.**—*Plomo.* **BEJONDEIZULA.**—*Enhorabuena.*
TAUPADAKA.—*Palpitando.*

Urduña bizkaitar herria, hanka bat Araban eta bestea Burgosen

GURE GEOGRAFIAREN BITXIKERIAK (II)



Bizkaitar izateagatik, Urduña aina borrokatu den herririk ez dago. Bizkaiaren mutur muturrean beti, Arabako **lautadan kokatua, Gaztelako** *mesetaren oinetan, Urduñak muga izatearen penak eta pozak jasan eta gozatu ditu azkenengo zazpi mendeetan zehar.*

1984.ean Urduñak bere bizkaitartasunaren 700. **urteurrena** ospatu zuen. 1284.eko ekainaren 17an, Don Lope Diaz de Haro Jaunak, Bizkaiko Jaurerriko zati baieztatzen du Urduña, "por siempre jamás", baieztapen itunak dioenez. Zazpi gizalditako bide luze honetan, Urduña Bizkaiko mugarik inportanteena izan da. Itsasertzetik Gaztelara eta handik honuntza errepidean hertsiki kontrolatutako muga. Hamabostgarren gizaldiaren erdi aldera Hiri izendatua; Bizkaiko lehen Hiria.

Garai bateko Urduñak, **Hiri murrailatuak,** bi ate nagusi zituen, hirigunean zehar Gaztelara zihoan errepidea kontrolatzeko: Bizkaiko atea iparraldean, Burgosko atea hegoaldean. Gaztelako artilea itsasuntzietara, Bermeoko arraina eta



Txarlazo gailurreko Andra Mariren irudia.

LAUTADAN KOKATUA.—*Situado en la llanada.*

GAZTELA.—*Castilla.*

URTEURREN.—*Aniversario.*

HIRI MURRAILATUA.—*Ciudad amurallada.*

salazoiak Gaztelarantz, Urduñatik pasa behar zuten. Hango eta hemengo produktu-garraioen bidesariak kobratzeko, herriko plazan daukazu tinko oraindik Aduana etxea; **harlanduzko eraikuntza** bikaina, Urduñako garai bateko diztiraren testigu, gaur isila. Merkatal herri abertsa izan da Urduña mendetan (gaur egungo Andorrarekin konparagarri), Espainiako mugak itsasertzera baztertuak izan ziren arte.



Garai bateko Urduñak bi ate nagusi zituen.

BIZKAIA IZAN NAHI

Bizkaitar hiririk zaharrena Bizkaiko lurraldetik kanpo aurkitzen da gaur, Arabako lurretan kokatua. Ez da beti horrela izan; 1491.ean Laudioko bailara, ordurarte Bizkaia zena, Arabak bereganatzen du, eta horra Urduña bere probintziatik separaturik geratu izanaren arrazoi sinple eta naturala. Zenbait aldiz kendu nahi izan diote Urduñari irla itxura hori, Bizkaitik Gaztelara edota Arabara pasatuz, baina Urduñak **irmoki** eutsi dio beti bere bizkaitartasunari. Azkenengoa 1843.ean izan zen, gudu karlisten inguruan; Esparterok, Laudio eta Okendo Bizkaiari itzultzearen truke, Urduña Arabara pasatzea erabaki zuen, herriari eritzirik eskatu gabe, noski. Berehala altxa ziren burrukan, udala, auzo-batzordeak, kale-ordezkariak, inguruetako baserriak, Urduña osoa, bat eginik, beren bizkaitartasuna **birkonkistatu** arte.

Bizkaitar hiririk zaharrena izanik ere, Bizkaiko lurraldetik kanpo dago.

Esparterok Urduña Arabara pasatzea erabaki zuen, baina herritarrek ez zuten onartu.



Muga izatearen abantailek eta eragozpenek osatu dute mendetan Urduñaren historia: merkatalgoa, kontrabandoa, pasabideko hiri izatearen aberastasuna, batetik; borrokak, handik hona erabilia izan nahia, salaketak, zigorra... bestetik. Hiriak aldaketa bortitzak jasan ditu historian

HARLANDUZKO ERAIKUNTZA.—*Construcción de piedra labrada.*

IRMOKI.—*Gogor.*

BIRKONKISTATU.—*Reconquistar.*

zehar. Bizkaitar izateari, ordea, irmoki eutsi diote gizaldiz gizaldi.

VILLAÑO, MAPETAN AGERTZEN EZ DEN AUZO BIZKAITARRA

Burgosen barrena, Urduñatik 27 kilometrotara, Bizkaiko beste lur zati bat dago: "La Cerca de Villaño". Komuneroen kontra urduñarrek Erregeari emandako laguntzaren eskerronez, Karlos Vak opari eman zion Urduñari Villaño auzoa, bere lur, biztanle eta guzti.



Herriko plazan dago Aduana etxea.

400 metro luzeran, 250 zabaleran, sei etxe ziren, **mugarriz** inguraturik, Mapan agertzeko aina ez, baina hala ere, garai batean eta inguru haietan behintzat nahiko ezaguna.



Urduñako pendoia.

Hara zer gertatzen zen; 1876an Forua kendu ziguten arte, bizkaitarrek ez zeukaten soldadutzara joateko obligaziorik, beren probintzia defendatzeko deituak izan ezik. Orduan, Burgosko herri askotatik Villañora etortzen ziren emakumeak haurra egitera. Horrela Bizkaian jaio eta inskribatuz, ez zeukaten soldadutzara joateko obligaziorik.

Karlos Vak Burgosen kokatua dagoen Villaño auzoa opari eman zion Urduñari.

Urduñako Hiriak urtero-urtero berritu izan du gizalditan Villañoren gain duen jabetasuna; txistulari eta guzti, Udala hara joaten zen urtero; 1951. urtean joan ziren azkenengoz, jabetasun adierazpen hori egitera. Ohiturari utzi arren, urduñarrek ondotxo dakite Villañoko hesi hori, Urduñarena izanik, bizkaitarra dela.

MUGARRI.—*Mojón, piedra divisoria.*

ELENA IRURETA: MIKAELA-TXINTXARRI BAT ANTZERKI EGITEN

Elena Irureta zumaiarra da eta ETB-ko "Hit-Parade" programa aurkezten du. Baina benetan gustatzen zaiona **antzeztea** *da. Londresa ingelesa ikastera joan eta han hasi zen antzerkia egiten. "Antzerti"-ko lehen promoziokoa da, eta "Troiarrak", "Marat-Sade", "Equus" eta beste zenbait obratan lan egin du. Azkena "Aspirina para dos-Jo ezak gogor, Sam" izan da, joan den irailean.*



1. Zein jende klaserentzat egiten da "Hit-Parade"?

—Musika gustoko duten guztientzat, eta bereziki bideo-klip zaleentzat.

2. Zer sentitzen duzu zeure burua pantailan ikustean?

—Aurreneko aldiz norberaren ahotsa magnetofoian entzuterakoan izaten dugun inpresioaren antzekoa da. Arraro samarra egiten zitzaidan hasieran. Azkenean ohitu egiten zara.

3. Zure lanagatik egin dizuten kritikarik gogorrena? Eta atseginena?

—Gogorrenak etxekoak eta lagunartekoak izaten dira. Esate baterako, naturaltasun faltarena, hasiera batean. Eta atseginena, nabari dela **antzezlari** naizela, eta ez telebistako "busto parlante" bat.

4. Zein tresna duzu nahiago: arpa ala adarra?

—Biak batera entzungo nituzke. Konposatu al da zerbait?

5. Punkyak ala (pos)modernoak?

—Iruditzen zait bakoitzak bere leku, momentu eta jendea duela.

6. Zerk **hunkitzen** *eta zerk izutzen zaitu?*

—Benetan hunkitzen nauena antzezlana da, edozein mediotan. Izutu, lan bat egin ondoren nire gustoko erresultaduak ez ikusteak.

7. Definitu zeure burua hiru adjetiborekin.

—Nik ezin dut, baina nire amak baditu adjetibo pila bat ni definitzeko: erdiero, marizoro, mikaela-txintxarri, eta abar.

8. Bizitza antzerki bat bezala hartzen al duzu?

—Antzerkia denok egiten dugu eta ez antzokian bakarrik. Maila desberdinetan, noski. Bat da kalean eta bizitzan egiten duguna, eta bestea nik profesionalki **antzokian** egin nahi dudana.

9. Nola ikusten duzu zeure etorkizuna antzerki munduan? Kontatu zure planak eta asmoak.

—Nahiko beltz. Herri honetan antzezlariok ez dugu oportunidade handirik izaten. Beraz, ez dago planik egiterik, gero ez dira ateratzen eta. Agertzen den lanari heldu beharra daukagu, pentsatzen aritu gabe. Gu beti gaude lanerako prest.

10. Zeintzu dira aktore **elebidunaren** *penak eta nekeak?*

—Lanerako orduan lana **bikoiztu** egiten zaigu. Hizkuntza bakoitzak bere bizia du, eta askotan zail egiten da biak neurri berean lantzea.

11. Hain da tristea la vie de l'artiste?

—Tristea baino gehiago gogorra dela esango nuke. Baina, hala eta guztiz, ez nuke aldatuko beste lanbide batengatik. Benetan gustatzen zait.

ANTZEZTU.—*Representar, hacer teatro.*
ANTZEZLARI.—*Actor, actora.*
HUNKITU.—*Emocionar.*
ANTZOKI.—*Teatro (lugar).*
ELEBIDUN.—*Bilingüe.*
BIKOIZTU.—*Doblar.*

TRIATLONA, HIRU BIDER ATLETA DIRENEN KIROLA

1977an, John Collins izeneko marine amerikar batek hiru kirol, igeria, ziklismoa eta antxintxika, bateratzeko ideia izan zuen. Honela sortu zen gerora arrakasta handia izan duen kirol mota berri hau, triatona. Berehala hasi zen zabaltzen Amerikan, eta bai laster pasa ere Europara. Batez ere Frantzian izan du zabalkunde handiena: aurten, esate baterako, hirurehun proba baino gehiago egingo dira han.





Munduko triatlonik gogorrena Hawain eratzen da. "Iron Man" deitzen zaio, **burdinazko gizona,** titulu hori ematen bait diote irabazleari. Baina horretarako aurrez 3,8 km. igerian, 182 bizikleta gainean eta beste 42,195 **antxintxika** egiten azkarrena izan behar.

Dena den, egiten diren triatlonak ez dira hain gogorrak. Comadet batzordeak, kirol honek indarra hartzean sortutako erakundeak, hiru mailatan **sailkatzen** ditu, distantzien arabera. Ondoko taulan ageri dira, A, B eta C mailen arteko aldeak.

	A	B	C
Igeria	1.000-1.500 m.	1.500-2.500 m.	2.000-3.000 m.
Ziklismoa	40-60 km.	60-100 km.	100-120 km.
Antxintxiketa	10-16 km.	16-28 km.	30-42 km.

EUSKAL HERRIAN ETORKIZUN ONA IZANGO DU

Gure artean aurten hasi dira triatlonak antolatzen, A eta B mailakoak denak. **Lehiaketa** gutxi izan dira, baina duela urte batzu herri maratoiekin gertatu zen bezala, badirudi jendearen artean arrakasta handia izango dutela. Izan ere, Euskadin dagoen kirolzaletasuna ez da txikia. Jende asko dago bizikletan, igerian edo footing egiteko ohitura duena. **Jende zaildua** askotan eta bere burua noraino iristen den ikustea gustatzen zaiona. Eta kantitatetik kalitatea sortzen denez, pentsatzekoa da laster triatleta gogorrak izango ditugula.

BURDINAZKO GIZONA.—*El hombre de hierro.*
ANTXINTXIKA.—*Korrika.*
SAILKATU.—*Clasificar.*
LEHIAKETA.—*Competición.*
JENDE ZAILDUA.—*Gente curtida.*

Dagoeneko hasi dira batzu nabarmentzen. Rikardo Hurtado bilbotarrak hemen eratu diren triatlon gehienak irabazi ditu. Iazko abenduan hasi zen prestatzen, baina aurretik hamar urtez jarduna zen ziklista federatu bezala. Horrexegatik, bizikletan aritzen da errazen, eta igerian du nekerik handiena.

Gogorrena kirol batetik bestera pasatzea da: zangoek ez dute erantzuten.

Gorrotxategi donostiarrari, berriz, alderantziz gertatzen zaio: igerilari federatua izan eta kostata aritzen da bizikletan. Aurtengo probetarako hamabost bat egun lehenago hasi zen entrenatzen, lagun batek utzitako bizikleta batekin. Hurtadok astean hogei bat orduz entrenatzen den bitartean, Gorrotxategik nekez betetzen ditu zortzi, sukaldari lanak ez dio tarte handirik uzten eta.

ESKARMENTUAK ERAKUSTEN DITU MAINA GUZTIAK

Hauek, onenak izan arren, ahal bezala moldatu izan dira orain arte, **arian-arian** ikasi behar izan dute. Orain esango dizute, esate baterako, entrenamendua lasai hastea komeni dela, denboraldia hasi baino hilabete batzu lehenago. Lehen asteetan kirolak banan-banan egitea da onena, konbinatu gabe, eta helburua fondoa hartzea izan behar du. Horrela pare bat hilabete pasa ondoren, kirolak elkarrekin konbinatzen has daiteke. Hain zuzen, hauxe da gogorrena: igeritik bizikletara edo bizikletatik antxintxiketara pasatzean, zangoek ez dute behar bezala erantzuten.

Beste gauza asko ere denbora eta **eskarmentuarekin** ikasten dira. Deshidratazioa, esate baterako, arazo larria da uda partean, eta bizikleta gainean batez ere jatea eta edatea komeni da. Badira B bitamina, mineralak eta abar dituzten preparatuak, baita frutazko pateak ere, baina oraindik ez dira erraz aurkitzen hemengo dendetan.

Entrenamenduaz eta **elikaduraz** gainera, badira beste mila xehetasun. Jantzia, esate baterako, ziklistek erabiltzen duten monoa bezalakoa da, pieza bakarra eta mangarik gabea. Dena den, ura hotza dagoenean (14°-tik behera edo), batzuk neoprenozko monoa jazten dute, surfistek eta



Triatlonaren azken saioa bukatzen.

submarinistek erabiltzen dutena. Gainera, uretan azkarrago joatea permititzen du. **Trikimailu** guztiak, dena den, arituaren poderioz ikasten dira.

Datorren urtean Le Coq Sportif-ek hemengo triatletez osatutako taldea atera nahi du.

Kirol hau promozionatzen ari direnak material deportiboa saltzen duten markak dira batez ere. Le Coq Sportif, Nike, Spedo edo abarrek beren triatleta talde profesionalak atera dituzte, eta zirkuitoak eratu. Hain zuzen, datorren urterako Le Coq Sportif talde bat atera nahian dabil, hemengo probetan nabarmendu diren atletez osatua. Horixe da Hurtado, Gorrotxategi eta beste zenbaiten esperantza.

ARIAN-ARIAN.—*Arituaren poderioz.*
ESKARMENTU.—*Experiencia.*
ELIKADURA.—*Alimentación.*
TRIKIMAILU.—*Maña.*

PORRUSALDA



GARBIKETA LANA ARINTZEKO, GLIZERINA

❷ Izozkailuko paretak eta apalak sarri zikintzen dira. Bada truko bat garbiketa lan hori errazteko. Garbialdi bakoitzaren bukaeran glizerinatan bustitako trapu batez igurtzi. Horrela errazago aterako duzu zikinkeria.

Bestalde, garbiketan ez erabili deterjenterik. Ur epelak eta bikarbonatoak ondo garbitzen dute izozkailua.

BIDEAN

IPARRALDEAN BARRENA



❸ Aurrekoan Burguen bukatu zen gure ibilaldia. Gaurkoa Amikuzen hasten da Arboti, Arue eta Olhaibiko elizek badute erromaniko puska bat. Inportanteenak baizik ikusi nahi ez badituzue, segidan joanen gara Bidarraira, Arruta, Oragarre, Isturitze, Heleta eta Luhuson **gaindi.** Bidarraiko eliza harri gorriz egina da. Zergatik eliza bat hor? XVII mendera arte etxe bakar bat ez zen hemen gaindi, ez eta biderik! Harpeko saindu famatuari konpetentzia egiteko ote zuten eliza hau eraiki?

Bobedarik ez du; protestante eta katolikoen arteko gerlen botaia izana da, Uharte Garazi eta Garaziko eliza gehienetan bezala. Igo galerietara: eltze batzu ikusiko dituzue hormetan. Altabozik ez zelarik, akustikarentzat ipini zituzten.

Donibane Garaziko lehen eliza erromanikoa zen, Santa Eulaliaren eliza. **Murruak** hor daude oraino, baita sartzeko atea ere: zahar etxe **bilakatua** da, geltokiko bidean,

BARAZKI.—*Hortaliza.*
IZOZKAILU.—*Congelador.*
HEZE.—*Húmedo.*
HEZETASUN.—*Humedad.*
GAINDI.—*Barrena, zehar.*
MURRU.—*Muro.*
BILAKATUA.—*Convertido.*



HEZETASUNA, BARAZKIEN ETA FRUTEN ETSAIA

Barazkiak eta fruta ez dira plastikozko zorrotan sartuta eduki behar **izozkailuan.** Plastikoak **heze** samar mantentzen du jana eta, beraz, lehenago usteltzen da. Paperezko zorrotan sartzea, esate baterako, irtenbide egokia da. Bestela, barazkien kutxaren beheko partean paperezko serbiletak ipini. Paperak gehiegizko **hezetasuna** kenduko die horrela.



AMONAREN MAINDIRE HORITUAK EROSI BERRIEN GISA UZTEKO

Maindire zuriei mantxa horiak azaldu zaizkie. Armairuan gordeta luzaro eduki dituzu nonbait. Berriz ere zurizuriak uzteko, erosi perboratoa eta esnearekin batera **ahia** egin. Esne hotza erabili horretarako. Ahia mantxen gainean ipini eta eduki piska batez horrela. Gero, uretan beratzen jarri maindireak eta ondo garbitu.

Baina bada etxeko beste errezeta bat ere. **Arraultz oskolak** txikitu eta ipini gasazko zorro batean. Maindireak beratzen jarri eta ontzi berean sartu arraultz oskolak. Gero, ohi bezala garbitu izarak.

ERROMANIKOA EZAGUTUZ (II)

bankuaren ondoan. Joan den mendera arte meza eman da hor eta Donibaneko kanposaindua **itzulian** zegoen.

Donazaharreko bi ermita zaharrenak ere erromanikoak dira, bat urrutikoa, Burgoxarre beherean dagoen zubitik berrehun metrotara (Burgoxarre deitzen da Erromatarren herri zaharra). Bestea, Donapaleuko bidean, kilometro batetara, aldapa beherean eskuinetarik, San Baldirena, Konpostelako beilarien ospitale famatuaren eliza. Hortik kilometro batetara, Iriberri eta Buztintzeko elizek ere ate erromanikoa dute.

Ate erromanikoak daude Donazaharre, Ahatsa eta Mendibeko elizetan ere. Altzitako elizaren eskuineko **pentze** erdi-erdian dagoen "borda" ere ermita erromaniko bat izanen da.

Goazen Iratin gaindi. Burdinkurutxetako lepora heldu aitzin, ezkerretarik Salbatoreko eliza. Hau ere XII mendekoa da eta auzoko artzainek kontatuko dizue "Xainduaren" ipuina; elizako giltza hark dauka. Zorigaitzez, duela zenbait urte, San Migelen zurezko estatua bat lapurtu zuten.



Santa Eulalia eliza Donibane Garazin.

XIPRI ARBELBIDE

AHI.—*Papilla.*
ARRAULTZ OSKOLAK.—*Cáscaras de huevos.*
ITZULIAN.—*Alrededor.*
PENTZE.—*Belardia. Pradera.*

IPUINAK

MUNDUAREN



Hasieran ez zegoen ezer. Maheo, Izpiritu Handia, **hutsean** bizi zen. Bere ingurura begiratu eta ez zuen ezer ikusten. Zerbait entzun nahi eta isiltasuna besterik ez. Maheo, ezerezean, bakar-bakarrik bizi zen.

Hutsaren amaigabeko denboran zehar, Maheok bere Ahalmenari nolabaiteko irtenbide bat eman behar zion.

—Zertarako hainbeste **Botere,** mundua eta herriak egiteko ez bada? —galdegin zion bere buruari—.

Eta bere **asmoak gauzatzeko,** Maheok **urtegi** zabal bat egin zuen, aintzira bezalakoa, baina gazia. Orduantxe konturatu zen bizitzaren hasiera ura zela. **Laku** luze-zabal hura izaki bizia zen. Hutsaren ilunpetan, Maheok uraren hotza sentitzen zuen eta bere ezpainetan gatzaren **zaporea dastatzen.**

—Uretan biziko direnak sortuko ditugu orain —esan zion Maheok bere Botereari—.

Ur ilunetan igeri, arrainak sortu ziren lehenik. Ondoren **txirlak** eta **marraskiloak** aintziraren ondoko hondar eta lokatzetan.

—Ur axalerako izakiak sortuko ditugu orain —esan zion Maheok bere Botereari—.

Eta han agertu ziren antzarrak, ahateak, **txilipurtak,** uroiloak, laku inguruetan igeri. Ur axalean, haien atzaparren irristak eta haien hegoalen astinduak entzuten ziren ilunpetan.

—Egin ditudanak ikustea gustatuko litzaidake —pentsatu zuen Maheok—.

Eta hala gertatu zen. Argi izpia, **gezi** bat bezala goitik behera lehenik eta esker eskuin gero, hedatzen hasi zen; **ekialdetik** zuri eta ahul hasieran; urre kolorezko eta gartsu zeruaren erdira heldu zenean. Eta **mendebaleraino** paseatu zen argia.

Argiari esker, Maheok txoriak, arrainak eta laku ondoko txirlak eta marraskiloak ikusi ahal izan zituen.

—Ikusgarria benetan! —sentitu zuen Izpiritu Handiak bere baitan.

Espazio amaigabe hartan, uraren axala baldarki **kolpatuz,** antzarra Maheo egon zitekeen tokirantz hurbildu zen.

—Ezin zaitut ikusi, baina existitzen zarela badakit —hasi zen esaten—. Oraintxe ere non zauden ez dakit, baina nonahi sumatzen zaitut. Entzun Maheo! Gure bizileku egin duzun aintzira hau zoragarria da. Txoriok, ordea, ez gara arrainak. Igeri eta igeri, nekatu egiten gara; uraz kanpo irtetea gustatuko litzaiguke.

—Abia zaitezte bada, haize zabalera! —agindu zuen Maheok, besoak zabalduz—.

Ur-txori guztiak **hegalak** astintzen hasi ziren, gero eta arinago eta zalapartatsuago, abiaduraren poderioz hegan egin arte. Txori bando alaitsu hegalariak zeruko argia itzaltzen zuen jirabiran.

Txilipurta itzuli zen lehenik Maheorengana.

—Zerua eta argia egin dizkiguzu, guk hegan egiteko;

HUTSEAN.—*En el vacío.*
BOTERE.—*Poder.*
ASMOAK GAUZATU.—*Plasmar los propósitos.*
URTEGI.—*Pantano.*
AINTZIRA.—*Laguna.*
LAKU.—*Lago.*
ZAPOREA DASTATU.—*Gustar el sabor.*
TXIRLA.—*Almeja.*
MARRASKILO.—*Caracol.*
TXILIPURTA.—*Txori mota bat.*
GEZI.—*Dardo.*
EKIALDE.—*Oriente, Este.*
MENDEBALE.—*Oeste.*
KOLPATU.—*Jo.*
HEGALAK.—*Hegoak.*

HASIERA



ura, berriz, igeri egiteko. Atrebentzia bada ere, zerbait gehiago eskatu behar dizugu; hegan eta igeri nekatzen garenean, atseden hartzeko leku tinko eta lehor baten premia dugu. Emaguzu arren, Maheo, gure habiak egiteko leku egokia.

—"Halaxe izango da" —erantzun zuen Maheok—. Baina leku hori egiteko, zuen guztion laguntza beharko dut. Lau gauza soilik egiteko ahalmena bait dut, eta dagoeneko eginak ditut: ura, argia, airea eta uretako **izakiak.** Hemendik aurrera Izadiak zuen laguntza behar du.

—Esaguzu nola eta gu prest gaude denok zure esanak egiteko.

—Hegazti haundien eta arinenok! Ur sakonaren hondo hondoan, lurra aurkitzen saia zaitezte! —esan zuen **antzarrari** begira—.

"Prest nauzu", esan, eta hegada bizian gora eta gora urrundu zen, zeruan puntutxo zuri bat bihurtu arte. Handik gainbehera ikaragarrian, uretan murgildu zen.

Luzaro izkutatu zen antzarra ondoan. Maheok lau aldiz kontatu zuen larehun, antzarra ur axalera agertu orduko. Mokoa zabalik, arnasa errekuperatu nahian, lehez eginda geratu zen uretan.

—Zer ekarri diguzu? —galdegin zion Izpiritu Handiak—.

Antzarrak arnas estuka:

—Ezer ere ez. Ezin izan dut.

Ondoren, txilipurta eta ahatea murgildu ziren, ezer ere lortu gabe. Uroiloa hurbildu zen azkenik.

—Maheo! —esan zuen **eztiki—, murgiltzen** naizen bakoitzean, han urruti, sakon-sakonean, zerbait badagoela iruditzen zait. Agian, igeri joan naiteke bertaraino. Nik ez dakit hegan egiten eta goitik behera murgiltzen, hauek bezala. Igeri egiten bai; eta ahalik eta ondoen egingo dut, ahalik eta sakonen joango naiz.

—Anaiatxo" —esan zion Maheok—, ea zer egin dezakezun.

—Banoa.

Eta hondorantz abiatu zen. Denbora luzea pasa ondoren, Maheok eta txoriek behetik gorantz zetorren puntutxo beltz bat ikusi zuten. Uroiloa leher eginda iritsi zen, mokoan bola bat zuela, argira begira. Uroiloaren mokotik, lokatz bolatxoa Izpiritu Handiaren eskuetan **jausi** zen.

—Zoaz anaiatxo, zoaz —esan zion, ekarri didazun lur zatitxo honek gordeko zaitu beti.

Eta halaxe izan da eta halaxe da oraindik ere. Uroiloaren haragiak **lokatz** gustua du, eta ez dago gizasemerik ez abererik, haragi mota hori jango duenik.

Maheoren eskuetan lokatz zatitxo hura Lurraren hasiera izan zen.

Mitos y leyendas algonkinos y sioux
Zero argitaletxea, 17-21. orr.

IZAKIAK.—*Seres.*
ANTZAR.—*Gansa.*
EZTIKI.—*Suavemente.*
MURGILDU.—*Sumergirse.*
JAUSI.—*Erori.*
LOKATZ.—*Barro.*





IKASLEA IRAKASLE (III)

DEKLINABIDEA

KASU NAHASKETA

Bai Gaztelania, bai frantsesa, deklinabiderik gabeko hizkuntzak direla esan genezake. Gure ikasleak hizkuntza horietatik datoz, gaztelaniatik batipat. Euskal deklinabidearekin topo egingo dute lehen momentutik, eta ez da batere **harritzekoa** noizean behin deklinabide kasuak elkarrekin nahastea.

Erdara horien eta euskararen artean ez dago honetan **erabateko** korrespondentziarik. Ikus, adibidez, erdarazko DE preposizioa zenbat funtzio ezberdinetan erabiltzen den. Funtzio bakoitzeko **atzizki** ezberdin bat erantsi beharko dio hitzaren erroari euskarak.

– Los chicos de Bilbao	(non-GO)
– El libro de Koldo	(no-REN)
– Viene de Getaria	(non-DIK)
– Lo digo de corazón	(zer-EZ)

Eta badira gehiago ere. "DE" zentzu anitzeko erdal preposizio honek sortzen du gure ikasleen artean hainbat nahasketa. Hala nola:

NOREN-NONGO

Bi galdera hauen arteko ezberdintasuna edozein ikaslek **bereizten** du. Galderarik agertzen ez denean, ordea, nahasketa sor daiteke.

Bi kasuotan erdaraz DE preposizioaz **baliatzen** gara:

de quién	- noren
de dónde	- nongo

Lehenak (noren) **jabetasuna** adierazten du; "posesiboa" deitzen diogu. Bigarrenak (nongo) lekuaren eta denboraren berri ematen digu; horregatik deitzen diogu "lokatiboa".

Ikus orain gure ikasleek nola nahasten dituzten jabetasuna eta lekutasuna euskal deklinabidean:

> – *Bertsolari gazteko txapelketa...*
> – *Estatu Batuen homosexualak...*
> – *Parrokiaren apaiza...*
> – *Pazifikoren irlak...*
> – *Erdi Aroaren gertaerak...*

NOIZ

– NOIZ galdera partikularekin ez da posible NOIZEN? galdetzea.

NOIZ-KO beharko du izan beti, bai galdera, bai erantzuna.

– NOIZ? galderari emandako erantzuna bi era hauetara izan daiteke:

HARRITU.—*Extrañarse.*
ERABATEKO.—*Osoko. Completo.*
ATZIZKI.—*Atze+hiz+ki = sufijo.*
BEREIZI.—*Distinguir.*
BALIATU.—*Aprobetxatu. Valerse de.*
JABETASUNA.—*Jabe izatea. Posesión.*

a) Denborazko adberbioz: *gaur, bihar, atzo, gero, aurten, berandu...*

b) Erantzun hitza NON kasuan deklinatuz: *arratsaldean, ostegunean, datorren urtean, nahi duzunean...*

Ikusi aztertu eta zuzendu ikasleen "perla" hauek:

– *Joan den urtea Londonera joan nintzen.*
– *Hurrengo osteguna azterketa egin behar dut.*
– *Uda hau Parisera joango gara.*
– *Urte asko etorri da.*
– *Edozein egun gertatuko da hemen ere.*

ZEREZ (instrumentala) ZEREKIN (asoziatiboa)

Bi kasu hauek ere nahiko nahasten dira bata bestearekin. Asoziatiboak erdaraz CON preposizioa eskatzen du. Instrumentalak ere bai batzutan:

– Lo hice con mi hermano.
– Lo hice con mi martillo.

Adibide hauetan "anaia" sozioa da (asoziatiboa); "mailua", berriz, instrumentua (instrumentala).

Oker mota honek gure artean **norabide** bat bakarra izaten du: instrumentalaren ordez asoziatiboa esan/idazten dugu. **Alderantzizkoa** (asoziatiboaren ordez instrumentala) apenas gertatzen da.

– *Ezkerreko eskuarekin idazten ikasi nuen.*
– *Ur freskuarekin garbitu ginen.*

Ura eta eskua, esaldi horietan, ez dira sozioak, instrumentuak baizik.

– Aditz batzuk konplementu instrumentala eskatzen dute. Hala nola: *baliatu, jabetu, konturatu, oroitu, ahantzi, kezkatu, ...* zerbaitez edo norbaitez egiten gara.

– Beste aditz hauekin: *mintzatu, irakurri, entzun, idatzi...* "zerez" eta "zeri buruz" kasuak sinonimo gertatzen dira.

– Instrumentalak denborazko iraupena adierazteko ere balio du: *"uda batez", "bost orduz", "urtebetez"...*

NORENGANDIK-NORENGATIK

Itxura berdintsua dutelako edo, bi kasu hauek ere nahasgarri gertatzen dira.

– NORENGANDIK, **izaki** bizidunen jatorria, **iturburua** adierazten du: "gurasoengandik ikasi dugu euskara".

– NORENGATIK, motibazio edo kausa eskatzen duen galdera da. Zergatik? pertsonei aplikatua: "Gurasoengatik egin dugu hau".

NOREKIKO-ZEREKIKO

Bi deklinabide kasu lotzen ditugu hemen (-rekin+-ko), "norbaitekin / edo zerbaitekin izandakoa" adierazteko. Beraz:

– Zuzendariarekin izandako elkarrizketa.
Zuzendariarekiko elkarrizketa

– Libiarrekin izandako istiluak
Libiarrekiko istiluak

Kasu hau zuzen erabili nahi badugu, -REKIN kasuari -N kendu eta -KO erantsi behar diogu. Bestela, honelakoak irtengo dira:

– *Hona hemen zuenerakiko erabakia.*
– *Haietariko harremanak ez ziren hain onak.*

IMANOL UNZURRUNZAGA

NORABIDE.–*Zuzenbidea. Dirección.*
ALDERANTZIZKO.–*Aldrebeskoa.*
OROITU.–*Gogoratu, gomutatu, akordatu.*
IZAKI.–*Ser.*
ITURBURU.–*Sorburua, nondikakoa. Origen.*

URRIAREN 1ETIK AZAROAREN 1ERA

❷



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Zure barnean aspalditik egosten ari zen krisialdi bati **aurpegi eman** behar diozu. Hala egiten baduzu, ez zaitu gaindituko. Ariestarrak egun hauetan adiskidekor sentituko dira: etxetik irten nahia lagun berriak ezagutu nahia, bizitzako ikuspegiak zabaldu beharra.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Arazo korapilatsuak soluziobidean daude. Zuk, ordea, nekez ahaztuko dituzu. Horregatik, zure inguruan dagoen **baikortasuna** ezin duzu sentitu. Ez da hau zure bakardaderako une egokia; irten, besteengana hurbildu, inork ulertzen ez zaituela uste arren. Asmoak burutuko dituzu, lankideen laguntzaz baliatzen bazara.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 21era

Arrisku ekonomikoetan zaude, eta okerreko inbertsioetan hanka sartzeko tentazioak dituzu. Oraingoan bai: "zalantza kasuan abstenzioa". Eta ez diru arloan bakarrik. Hilabete honen bukaeran, geminitar bihotz bakartiek fletxazo **bortitz** bat jasan dezakete, ondorioak eta irautea norainokoak izango diren ez dakigularik.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Zure izakeraren alde altruista nabarmenduko da hilabete honetan. Zure baitan dagoen "samariar onak" besteen arazoez zureetaz baino gehiago arduratzera eramango zaitu. Kontuz zure esku zabalarekin! Ustekabean agian, zure laguntza jasotzen dutenak abusatzaile ere gerta daitezke.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Merkuriok zure jokabidea markatzen du eta ingurukoentzat ezusteko gertatzen ari zara. Urduritasunak eta bapateko umore aldaketek zure **ezkontidea,** lagunak, familia eta lankideak **txundituko** dituzte. Bestalde, zinismorako joerak eta kupidagabeko komentarioek ondoeza besterik ez dizute ekarriko.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Itxuraz garrantzirik ez duen laneko axolagabekeria batek ustekabeko ondorio txarrak ekar ditzake epe laburrera. Arreta handiz ibili behar duzu hilabete honetan, eta lan arazoak konpondu, egunean egunekoak. Maitasun premia berezia sentituko duzu, ingurukoek nekez beteko dutena. Ez ulertua sentitzeko joera izango duzu.

Zuhurgabekeria eta ezinegonerako joera: etxean eta ibilbideetan **istripu** arriskuak. Aste pare batez bidaia luzerik gabe etxe inguruan geratu eta bertan ere arretaz. Bestalde, ilargiaren eraginez hilabete honetan **sentiberaegi** ibiliko zara; besteen komentariorik inozoenek ere mindu egingo zaituzte.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Zorteak irribarre egingo dizue scorpiotarroi bizitzaren edozein alorretan: zentimenduetan, osasunean, ogibidean... Urruti bizi diren pertsonengandik berri onak, familia barneko pozaldiak... Hilaren bukaera aldean, lanarekin zerikusirik duen erabaki bat hartu beharrak zalantzan jarriko zaitu.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Gauza berezirik ez dago **bolada** honetan sagitariustarrentzat. Senitarteko eta lagunarteko loturak tinkoak agertzen dira eta egun hauetan zure ekonomiarentzat berri onen bat jaso dezakezu. Lana gogoz egiteko eta gutxi gastatzeko joera duzu. Halere, ez zaude guztiz ados zure eguneroko bizitzarekin.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Maitasun premia nabarmenduko zaizu. Eta ez duzu jakingo nola hurbildu besteengana, nola azaldu zure sentipenak, nola laguntza eskatu zeure adiskideei, gero eta urrunago eta ulergaitzago iruditzen bait zaizkizu. Guzti honek egoera **ezkorra** piztu dezake zure baitan.



CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Ilargialdiak egun hauetan apur bat txoratu egingo zaitu: bapateko irtenaldiak, umore aldaketak, jokabide nahasiak... zerorrentzat ere ulergaitzak. Harrokeria bereziki **garatua** duzu; ingurukoei lekuz kanpoko erantzunak emateko arriskuan zaude. Badaezpada ere, hobe duzu egun hauetan erabaki garrantzizkorik ez hartzea.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Elkarrizketarako une egokia, gaizki ulertuak konpontzeko, zeuk hartutako eta atsegin ez zaizkizun erabakiak ezabatzeko, arlo sentimentalean batez ere. Lanean gauzak argiago ikusten hasi zara; agian atseginago zaizun lanbideren bat aurkitzeko aukera eskainiko zaizu.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

AURPEGI EMAN.—*Hacer frente.*
BAIKORTASUN.—*Optimismo.*
BORTITZ.—*Fuerte.*
EZKONTIDE.—*Consorte, cónyuge.*
TXUNDITU.—*Harrituta utzi.*
ZUHURGABEKERIA.—*Imprudencia.*
ISTRIPU.—*Accidente.*
SENTIBERAEGI.—*Demasiado sensible o suspicaz.*
BOLADA.—*Temporada.*
EZKOR.—*Pesimista.*
GARATUA.—*Desarrollado.*

Olerkiak



❹ Urrian sartu garela eta, Omar Navarrok Susan argitaratutako "Egutegi esperimentala" poema-liburuan **urrian** eta urriari buruz idatzitako olerkia aukeratu dugu. Derioren deskribapena da, baina ez nolanahikoa, halako **malenkoni** kutsua nabari bait zaio. Ez da udazkena heriotzarekin lotzen den lehenengo aldia, baina hala ere figura poetiko horrek badu oraindik indarrik. Poema hau aipatutako liburuaren hirurogeigarren orrialdean aurkituko duzue.

DERIO URRIAN; HOGEITASEI LERRO ETA LAR

Urria oparoa:
aro emankorra.
Hilerritik hurre, errepide berrian,
goizero
lainopean
—beidura hautsiak begiak.
erraiak leherturik—
txakur hilen baten gorpua:
satorrak ere
hilik.
Urre zaharra **madari berantiarrak**
arboletan onduta
eta baserrietxe zaharretako **etarteak**
mahats mordoz gainezka.
Lurrera **erortzear**
Gasoleo errearen **kedarra**
egun urratuan hedatzen.
Derio! Derio!
Bizpahiru metro sakon
hondorik gabeko azken **erorgua**:
bertako ertzean
jezarrita,
Herio,
goizero,
hain aro oparoa dugun
Urri emankorrean.

URRI.—*Octubre.*
MALENKONIA.—*Melancolía.*
HILERRI.—*Kanposantua.*
MADARI BERANTIARRAK.—*Peras tardías.*
ETARTE.—*Atartea. Atrio, portal.*
ERORTZEAR.—*Erortzeko zorian.*
KEDAR.—*Hollín.*
ERORGU.—*Erortlekua. Precipicio.*
JEZARRITA.—*Eserita.*

B	A	U	G	A	T	i	N	B	A	G	E
N	Z	K	E	S	J	F	E	G	O	M	P
T	i	R	U	B	i	X	O	M	K	E	O
S	A	S	N	S	E	G	i	X	U	X	L
i	X	N	K	E	A	J	E	F	K	G	i
R	B	A	N	O	B	T	H	B	E	N	Z
X	L	E	F	J	O	B	U	T	L	E	i
A	Z	G	i	A	K	U	F	A	H	O	A
S	X	B	E	P	A	i	L	E	A	T	Z
O	R	F	U	E	T	E	A	Z	O	H	i
U	F	R	G	O	U	T	i	B	E	Z	M
A	S	A	M	H	A	Z	E	M	Z	B	i



LETRA-ZOPA

EPAITEGIAN

Sei hitz aurkitu behar dituzu letra-zopa honetan. Marrazkian azaltzen dira guztiak. Aurkitu ondoren irudien ondoan ipini.

IZKUTUKO MEZUA

Joko honetan letra ordez **zeinu** berezi batzu jartzen ditugu. Zeinu bakoitzari letra bat dagokio. Hasi konbinazioak egiten eta ea testua osatzen duzun. Horretarako zazpi zeinuren esanahia asmatu beharko duzu. Testua Argia-k argitara emandako "Arpa jotzen" liburutik hartu dugu.

ELEG□NTE ITXU▲□ ZUEN
△EN△□N ■□▲TU ZEN TIPO
◊U▲□. ITXU▲□ ⊡E◊INTZ□T
⊡□I.
– J□NTZIT□ △U△□N□
⊡EZEL□△O □L△ON△□▲□
⊡□T N□◊I NU△E.
–⊡□▲△□TU, ⊡□IN□ ◊EMEN
■□LTZEN △I▲EN GUZTI□△
G□△⊡I□△ IZ□TEN △I▲□.

▲ =
■ =
△ =
△ =
□ =
⊡ =
◊ =

HERENSUGE SILABIKOA

Zortzi hitz sartu behar dituzu herensuge silabikoan. Hutsune bakoitzean silaba bat sartu behar duzu. Baina kontuan izan hitz bakoitzaren azkeneko silaba hurrengoaren aurrenekoa dela.



1.–Gerrarik ez dagoen denboraldia.
2.–**Zuhurra,** zikoitza.
3.–Neba edo anaiaren andrea.
4.–Portuko sarrera zaintzeko tokia.
5.–Gizasemeen gertuko senidea.
6.–Mendiko etxe mota bat. Mendizale elkarteek **eraikitzen** dituzte honelakoak.
7.–Koloka.
8.–Iloba bizkaieraz.

SOLUZIOAK

Aurreko alean eman genituen jokoen soluzioak:

- **LETRA-ZOPA:**



- **IZKUTUKO MEZUA:**
  – Orain, hasieran, egunean mila pezeta irabaziko duzu eta geroago mila eta bostehunera igoko dizut **soldata.**
  – Orduan geroago etorriko naiz.

- **HERENSUGE SILABIKOA:**



OHARRA: Hurrengo alean emango ditugu ale honetako jokoen soluzioak.

ZUHUR.–*Avaro.*
ERAIKI.–*Construir.*
ZEINU.–*Signo.*
SOLDATA.–*Jornal.*

BORROKA LUZEA

Etnologo askok dioenez, izan zen **aro** matriarkal bat gizadiaren hasieran, eta oraindik ere badira gizarte primitiboetan horren **arrastoak.**

Aro hartan emakumeek zuten **agintea** gizartean, berek asmatu bait zuten **lurgintza.**





Antzinateko herri zahar haietan jakin ohi zen jaiotako haurraren ama nor zen, baina inoiz ez ziur aita zein zuen; horregatik moldatu zuen gizarteak antolamendu matriarkala.

Alabaina, laster aldatu ziren gauzak, emakumeak, hasieran ugari zirenak, **urritzen** hasi bait ziren. Gizasemeek andreak erosi edo lapurtzera jo zuten eta patriarkatua sortu zen. Emakumea umeak ekartzeko tresna besterik ez zela geratu zen.

ARO.—*Aldia. Epoca.*
ARRASTO.—*Aztarna. Rastro.*
AGINTE.—*Mando.*
LURGINTZA.—*Laborantza, nekazaritza.*
AINTZINATE.—*Antigüedad.*
URRITU.—*Gutxitu.*





Aspaldikoak dira, hala ere, emakumearen egoera hori eskubide guztien aurkakoa dela **dioten** ahotsak. Platon, Greziako filosofo **ospetsuak** honela dio: "Ez da estatuan sexua dela eta emakumeari ala gizasemeari bakarrik dagokion **lanbiderik**".

Erromatarren artean ere izan ziren, Seneca lekuko, emakumearen egoera legezko eta egoera sozial okerra zela ziotenak, nahiz eta Erromako emakumeen egoera Greziakoena baino askoz hobea zen.

Kristauek zalantzarik gabe aitortu zioten emakumeari pertsona denez duen balioa (ez dago ez emakumerik ez gizasemerik, pertsona bakarra baizik Kristorengan). Baina hori ez zen praktikan gauzatu.

Erdi Aroan ondo mugatu ziren emakumeen, batez ere ezkonduen, eskubideak. Hauek beren senarren mendean geratu ziren legearen aginduz: "Jainkoak emakumea gizonari eman dio, senarrak hartzen duenean zerbitza dezan eta gogoan eduki ezkontzaren barnean gizona emakumea baino **gorenagoa** dela, hirutik biko neurrian. Horregatik izan behar du emaztearen nagusi".

DIOTEN.—*Esaten duten.*
OSPETSU.—*Izen handikoa, sona handikoa.*
LANBIDE.—*Ogibidea. Profesión.*
GAUZATU.—*Egia bihurtu.*
GOREN.—*Goi mailakoa, altua.*



Urte eta mende askotan zehar ez zuen inor gehiegi **kezkatu** emakumearen egoerak.

Frantziako Iraultza etorri zenean, bere askatasun, berdintasun eta **senidetasunaren** idealekin, normala ematen zuen emakumeak gizarteko eta legezko **mugapenak** gainditzea. Alabaina, besterik gertatu zen. Iraultzako lehen **irakinaldia** baretu zenean, betiko egoerara itzuli ziren emakumeak.



XIX mendean, ordea, gero eta emakume gehiago hasi zen beren egoera mugatuaz eta zapalkuntzaz ohartzen. Eta Europa eta Ameriketan entzuten dira lehen deihadarrak horren aurka.



1848ko uztailak 19an sortu zen lehen mogimendu feminista. Egun horretan onartu zen New York-eko estatuko Seneca Falls herrian geroztik "Seneca Falls-eko Adierazpena" izenarekin ezagutzen den agiria. 300 bat gizon eta emakumeren aurrean irakurri zen. Dituen 12 erabakietatik **ahobatez** onartu ziren. Hamabigarrena, botu, eskubideari **dagokiona,** orduan jaio eta geroztik etengabe borroka luzean ari diren Elkarte Feministen helburuetako bat izan da.

KEZKATU.—*Arduratu.*
SENIDETASUN.—*Hermandad.*
MUGAPEN.—*Limitación.*
IRAKINALDI.—*Beroaldia.*
AHOBATEZ.—*Denak ados, denak batera.*
DAGOKION.—*Referente a.*

AXULAR

AXULARREK IDATZI ZUEN "GERO" LIBURU HONEK FAMA HANDIA EMAN ZION, AZKENEAN JENDEAK IPUINETAKO PROTAGONISTA BIHURTU ZUEN AXULAR, NARIREN SEHE ONA ZEN ATARRABIREN ANTZERA.















ORDAINTZAT.—*En pago.*
URRIKALDUTA.—*Compadecido.*

ZERBITZATU.—*Servir.*
KOBA.—*Cueva.*



KIZKI.—*Garfio.*
ITZAL.—*Sombra.*
BEHIZAIN.—*Unaia. Vaquero.*

ITXURALDATUTA.—*Transformado.*
MANDATU.—*Encargo.*

ZETA.—*Seda.*
AZPIKERIA.—*Trampa.*

















ZEINU.—*Signo.*
MOZORROTUTA.—*Disfrazado.*
TXINGOR.—*Granizo.*
SAGARAKOAN.—*En la consagración.*
GORPU.—*Cadáver.*

Aurreko aldizkarian hasi ginen ikasturte honetako "Ezetz asmatu" jokoarekin. Esan bezala, oraingo joko honek hiru bat hilabete bakarrik iraungo ditu. Ez utzi, beraz, galdera bakar bat ere erantzun gabe. Saria, besteetan bezala, liburu sail bat izango da.

Kontrazalean argazki bat azaltzen da. Guk argazki horri buruzko galderak egingo ditugu eta zuek orrialde honetako pisten bidez asmatu behar dituzue. Puntua jasotzeko bi galderak asmatu behar dituzue.

Hilabeteko epea ematen dizuegu erantzuteko. Soluzioak ere galderak egin eta handik hilabetera azalduko dira. Asmatzaileen zerrenda, berriz, galderak egin eta handik hilabete t'erdira eskainiko dizuegu.

Helbide honetara bidali zeuen erantzunak:

HABE aldizkaria
Reina Regente, 2-1
20003 DONOSTIA



—Zein da tontor horren izena?

—Zein mendikatetan dago?



Mendi hau paraje horretatik gertu dago.



Eliza hau tontorra dagoen herri berekoa da.



Tontorraren izenak badu zerikusirik argazkian ikusten denarekin.

